

3.- UNITATEA: HANDITUZ

1. NIRE AUZOA

Aurreko unitatean, Itsas bazterrean, herria harresiturik ikusi genuen. Era berean, itsasoa noraino iristen zen, itsasadarra eta portua non zeuden ezagutu genuen.

Gaur egun arte iraun duten eraikuntzak aztertu genituen. Baita zenbait eraikuntzen lekuan aurretik zeudenak ikusteko aukera izan genuen grabadoei, marrazkiei eta argazkiei esker.

Unitatean aipatu genuen portuari eta herriak zituen baliabide naturalei esker (egurra, ura eta abar) ondorengo industri iraultza ekarri zuten industriaren hastapen haiek sendotuz joan zirela. Horrek, eta herriak eskaintzen zituen azpiegiturek (hezkuntza, osasungintza, merkataritza eta abar), bertan bizitzeko erakargarri bihurtu zuten. Ondorioz, jende ugari etorri zen bizitzera eta hazkunde handia ezagutu zuen.

Harresien barruan herria jada kabitzen ez zenez, harresietatik kanpo garatzen hasi zen. Horixe izango da, batik bat, unitate honetan landuko duguna, herria zergatik, nola eta norantz handitu eta zabaldu zen.

Ezer baino lehen, ikasleek herriaren antolaketa eta osaketari buruz dituzten ezagutzak biltzen ahaleginduko gara.

Norberaren auzotik hasiko gara. Auzoaren izena eta haren deskribapena egitea eskatuko diegu. Ahalik eta informazio gehien ematen saiatzeko eskatuko diegu: deskribapena, zein zerbitzu dituen, biztanle kopurua eta abar.

JARDUERA1: Nire auzoa..... da.

JARDUERA2: Horrelakoa da nire auzoa:

JARDUERA3: Marraztu zure auzoan gustuko duzun txokoa.

Koadernoko 3. orrialdea.

2. BADIRA AUZO GEHIAGO

Norberaren auzoez gain, ezagutzen dituzten beste auzo batzuk aipatzeko eskatuko diegu jarraian. Informazio horrek ikasleek herriaren osotasunari buruz duten informazioaren berri emango digu.

JARDUERA1: Aipatu ezagutzen dituzun gainerako auzoak.

Koadernoko 3. orrialdea.

3. HERRIA BEHIN ETA BERRIRO SUNTSITURIK

Garai hartan, Gaztelako koroaren eta Frantziako erregeen arteko liskarrak ugariak ziren. Gainera, Gaztelako koroak Nafarroako erresuma konkistatu zuen 1512an.

Herria Nafarroako erresumakoa izan zen, eta liskarretan zebiltzan bi erresumen arteko mugan egonik erasoak jasaten zituen maiz.

Ondorioz, herria harresiturik zegoen Gaskoien, Nafarren eta Gipuzkoako beste aldeetako biztanleen erasoetatik babesteko.

Ezagutzen den lehen eraso 1476ko udaberrian gertatu zen. Orduan, Hondarribia setiatu zuen 40.000 soldaduko frantziar gudaroste batek herriari su eman zion. Hondamena izugarria izan zen: 15 herritar hil zituzten, herriko emakumeak bortxatu zituzten eta dena suntsitu zuten. 1489an, Errege Katolikoek, 20 urtez herritarrak zergetatik libre utzi zituen herria berriro eraiki zezaten.

Bigarren eraso, berriz, 1512an gertatu zen. Urte hartan, Gaztelak Nafarroako erresuma konkistatu zuen. Errege frantziarrak Nafarroa konkistatu nahi zuen. Helburua lortzeko asmoz, gaztelarrei lagundu zien armada ingelesak herriko inguruetatik alde egin zuenean, era berean, Labriteko jauna bidali zuen Donostia eta Hondarribia (Nafarroako erreinukoak izan zirenak) konkistatzeko aginduz.

Bi herriak setiatu zituzten, eta haien inguruak arpilatu zituzten.

Frantziar gudarosteek berriro suntsitu zuten herria oinarrietaraino. Ikaragarritzko lapurretak egin eta herriari su eman zioten, baita elizari ere. Sute izugarri hartatik hiru etxe besterik ez ziren geratu zutik.

1638an, beste eraso bat ere jasan zuen, frantziar gudarosteen eskutik hori ere. Eraso hartan, baserriak eta bi errebalak, Madalenakoa eta Santa Klarakoa kiskali zituzten, baita 300 etxe baino gehiago.

Erasoaren aurretik, 500 familia bizi ziren herrian. Urtebete beranduago, ordea, apenas geratzen ziren ehun beren etxeen hondakinetan.

Kalteen larritasuna ikusirik, udalerria estrategikoki hobeto babestutako lekuren batera eramateko erabakia hartu zen, Basanoaga gainera, hain zuzen. Asmo horren xedea zen herria kokaleku garaia eta menderatzeko zailagoa izango zen lekuan finkatzea. Hala, portutik barrena izan zitezkeen erasoaldietatik babestu ahal izango zuten herria.

Auzoak, zalantzati, ez ziren ausartzen etxeak berreraikitzea, lekualdatzearen berri ziur jakin arte. Biztanleriaren galerari buruzko datu zehatzik ez izan arren, erasoan hildakoak eta ihes egindakoak kontuan izanik, pentsa liteke indarberritze demografikoak zenbait hamarkada beharko zituela gauzatu arte, baina inolaz ere ez osotasunean, XIX. mende hasiera arte berrogeita bederatzi etxe baitzeuden lur jota gerra izan zenetik.

Geroago, 1719an eta 1794ean Frantziako armadak bere mende hartu zuen herria. Ekintza horiek eragoztearren, Udalak Jose Ignacio de Gamon eta Jose Isasaren esku utzi zuen Udal Artxibategiko dokumentuen zaintza, eta horretarako, Santanderrera eraman zituzten, gerra amaitu artean ondo gordeta egon zitezten. Orduan, berriro, herria Basanoaga gainera lekualdatzeko proiektua aztertu zen, baina oraingoan ere ez zen gauzatu.

4. KOKAPEN BERRIA HERRIARENTZAT

Herria kokapenez aldatzeko Alduntzin lizentziatuak eta Juan de Garaik txostenak egin ondoren, 1643ko otsailaren 8an, Errege zedula bat gauzatu zen herria Basanoaga gainera aldatzeko baimena ematen zuena. Azkar aritu ziren herritarrak lanean, hilabete eta erdiko epean, 1643ko martxoaren 26rako, trazatuak zituzten kaleak, eliza eta gainerako eraikin publikoak. Inguruko zuhaitzak ere moztu zituzten.

Hala ere, azkenean, proiektu hori ez zen burutu. Izan ere, donostiarrak beldur ziren kokapen berrian herria hazi eta portuan indar handiago bereganatuko ote zuen. Gainera, udalak ekonomikoki porrot egina zuen. Liburuxkan aurkitu duzun irudian, Jerónimo Soto ingeniariak egindako plano (duela gutxi arte ezezaguna) duzue. Bertan, Basanoaga gainera lekualdatu ondoren herriak izango lukeen harresi egitura ikus daiteke. Punturik garaienean kokatutako gaztelu-gotorlekuaz gain, beste bederatzi plataforma edo bastioik babestuko lukete harresien barrualdea. Ezkerrean, Kaputxinoen komentua ikus daiteke, 1612. urtean Matxingoa lursailetan eraikia. Leku berean kokatu zen hiru mende beranduago “Real Compañía Asturiana de Minas” delakoa.

JARDUERA1: Zeren beldur ote ziren Donostiarrak?

JARDUERA2: Zein abantaila ikusten dizkiozu kokapen berriari?

Koadernoko 4-5. orrialdeak.

5. HERRIA HANDITUZ

Itsas-merkataritza jardunbide indartsuari esker biztanleak ugaltzen ari ziren. Zabalkunde horri erantzunez, Kapitanenea, Santa Maria eta Santxoenea kaleak sortu ziren.

Biztanle kopuruak, ordea, handituz jarraitu zuen. Hala, harresi barruko esparrua aldatu gabe herri zabalkuntzarako baliabide bat erabili zuten: errebalena.

1494ko urriaren 30ean biztanleria harresietatik kanpora zabaltzeko eskaera egin zuen herriak.

Antza, herritarren artean herria norantz zabaldu behar zenaren gainean irizpide desberdinak zeuden. Batzuek irizten zioten herria Madalenako ermita aldera zabaldu behar zela, baina beste batzuek, ordea, Santa Klara aldera zabaldu behar zela pentsatzen zuten.

Desadostasun handiak sortu ziren herritarren artean, gai hori zela eta ez zela. Garai hartan herria Gaztelako erreinuaren menpe zegoenez, erregeri eskatu zioten epailea jar zezala auzia ebazteko.

Azkenean, herria bi aldetara zabaltzea erabaki zuten; ondorioz, bi errebal sortu ziren: Madalenakoa eta Santa Klarakoa.

Madalena kaleko errebala ere biztanlez betetzen hasi zen. Gogoratu, errebal horretatik barrena udalerriko ontziola garrantzitsuenetako batera iristen zela, Pontikakora. Era berean, Galtzarabordatik barrena Donostiara joateko bidea zen.

JARDUERA1: "Biztanleak ugaritzen ari ziren eta jada ez ziren kabitzen harresien barruan.

Herria handitu beharra zegoen eta garai hartan beste herri batzuetan egin zen bezala harresietatik kanpo zabaltzea egitea erabaki zuten. Baina norantz?

Hainbat proposamen zituzten herritarrek. Eztabaida gogorak izan omen ziren herria alde batera zein bestera zabaldu nahi zutenen artean".

Koadernoko 6. Orrialdea

JARDUERA2: Egin ditzagun hipotesiak: ezagutzen dugu herria nola zegoen eraikia harresien barruan. Nola imajinatzen duzu joan zela hazten gaur egun ezagutzen dugun herria izan arte? Zer eraiki ote zuten lehenago, zer ondoren?

6. ETORKIN UHOLDEAK

XIX. mendearen amaieran lantegiak sortzen hasi ziren. Hurrengo urteetan, XX. mendearen hasieran, asko ziren herrian zabaldu ziren lantegiak.

Lantegi horiek eskulan ugari behar zuten. Horregatik, jende asko etorri zen bizitzera herrira; hasiera batean aldameneko herrietatik, ondoren Gipuzkoako beste herrietatik eta gero Euskal Herriko gainerako herrialdeetatik, batez ere Nafarroatik.

Pixkanaka langile horien atzetik familiak ere etortzen joan ziren herrira. Ez zegoen nahikoa etxebizitzarik eta auzo eta bizileku berriak eraikitzen hasi ziren, lantegien eta aurreko urteetan eraikitako zabalguneen inguruan. Garai hartan sortu ziren hainbat auzo: Etxeberriak/ Casas

Nuevas, Gaztaño, Morrongileta eta Agustinetako beheko aldea, besteak beste.

XX. mendeko 60ko eta 70eko hamarkadak –Gerra Zibilaren ondorengo urteak, alegia– izan ziren ordea etorkin uholde bortitzenak ekarri zituztenak.

Etorkin horietatik gehienak Espainiatik etorri ziren. Izan ere, herriak komunikabideekiko duen kokagune estrategikoak eta portuarekiko hurbiltasunak jendeen etorrera erraztu zuen. Etorkin uholde handi horrek era guztietako ondorioak izan zituen herriko bizitzan, baita kultura eta hizkuntza arloan ere.

Beraz, herria 27 urtetan igaro zen 12.784 biztanle izatetik 49.210 biztanle izatera. 1900. urtean ziren 4.000 biztanle haiei 45.000 gehitu zitzaizkien. Izugarria izan zen urte gutxitan herriak jasan behar izan zuen maila guztietako aldaketa. Ez ziren nolanhikoak izan, ordea, horrek guztiak eragin zituen ondorioak.

Etorkinen oldar izugarri horri aurre egiteko, zementuzko dorre tzarrak altxatu ziren nonahi. Horrela, sortu ziren Alaberga, Iztieta, Olibet, Pontika, Agustinak, Galtzaraborda, Beraun eta Sorginzulo auzoak, besteak beste.

Biztanleen garapenaren datuak dituzue segidan. Lehen datua, 1.294 biztanle, 1768koa da eta azkena, berriz, 41.033 biztanle, 1999koa. Hortik aurreragoak aparte eskaini nahi izan dizkizuegu banaka.

JARDUERA1: Osatu taula alboan dituzun datuekin. Ondorenean, aztertu, biztanleen garapenaren marra.

Mende honetan biztanleen kopuruak gorabeherak izan ditu. Urtez urteko datuak eskaintzen dizkizugu taula osa ditzaten.

Jarraian interesgarria litzateke ondorioak ateratzea eta zein hausnarketa egiten duten entzutea.

JARDUERA2: Zer gertatzen ari da XXI. mendean?

Koadernoko 6. orrialdea.

Zenbaki horiek, ordea, izen-abizenak dituzte. Interesgarria litzateke ikasle bakoitzak bere familiaren jatorria ikertzea: nondik etorri ziren, noiz, nola? Herrian familia bakoitzak zenbat belaunaldi daramazkin ere aztertu daiteke.

Ikusten duzue, informazio handia eta aukera aparta dugu migrazioaren gaia bertatik bertara aztertzeko. Gai honetan nahi edo ahal adina sakon dezakezue. Informazioaren trataera ere landu dezakezue: taulak, eskemak, multzoak, muralak eta abar osatuz.

JARDUERA3: Eta noiz heldu ote ziren herrira gure etxeokak?

7. HERRIARI BERTSOTAN

Historian zehar bertsolari ospetsuak izan ditugu herrian. Sormen lanen artean, gainera, herriari botatako zenbait bertso ere badituzte. Horietako bat dugu Pello Zabaleta Lekuona.

Bertsolari hori Goiko kalean jaio zen 1896an. Bere bertsoei esker dakigu bere bizitzaren eta, bide batez, herriko pasarte askoren berri.

Herrian bertan hil zen 1967an.

Pelok bazuen beste anaia bat ere, Juan, bertsolaria zena.

Fabril Laneran lan egin zuen tindategian, artilea tindatzen zuen. Pinturarekiko zaletasun handia zuen.

Juan Zabaleta gazterik hil zen 1950ean, lantegian erabilitako tinta toxikoek barrunbeak erreta, seguruenik.

Haien lanak argitaratu zituen Antonio Zavalak Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak (1967) bertso bilduman. Bertso jarriak, berriz, Bertsolariya aldizkarian argitaratu zituen.

Pello Zabaletaren bertso sail ezagunenak hauek dira: Europako Gerrari (1917), Sesiyo bat (1923), Alkar eziñ ikusiya (1932), Ijito antzeko bati (1931), Langillien alde (1934), Katu baten istoriya (1942), Oraingo Errenteriari (1946), Errenteriko Jangoiko-Txiki zanaren bizitza (1963).

Pelok bere garaian herriak jasan zuen aldaketa sakona eta itzela ezagutu zuen. Bertso sorta eder honetan haien berri ematen digu.

Liburuxkan ikasleekin lantzeko esanguratsuenak iruditu zaizkigun bertsoak aukeratu ditugu. Behar bada bertso guztiak erakustera animatuko zaretenez, hementxe dituzue guztiak. Doinua, berriz, oso antzinakoa da eta gaur egun gutxi erabiltzen da, haren izena Hamar urteko nintzan oteketan hasi da:

ORAINGO ERRENDERI

Orain berrogei urte
gure Errenderi
kasik esan liteke
etzala ageri;
urtetikan urtera
handitzen da ari,
ordutikan honera
Parisa dirudi.

Au da Errenderia
lenago etzena,
gaur ate geienetan
denda edo taberna;
nonahi sartu liteke
kanpotik barrena,
badago non gastatu
irabazten dena.

Jendea heldu zaigu
urrutitagikan,
ez da iñor joaten
etortzen dakinak;
bost aldiz haundiago
egiñagagikan
guk hemen ez daukagu
txoko bat hutsikan.

Orain berrogei urte
denen lagun nintzen,
gaur berriz kasik ez det
iñor ezagutzen;

askotan egoten naiz
gauza hori pentsatzen:
orduak umorerik
ez det sentitutzen.

Notiziak baditut
Amerikatikan,
euskaldun asko bai da
joana hemendikan;
lur hortaz oroitutzen
dira oraindikan,
nunbaite bizi behar,
ez da besterikan.

Agur, amerikano
Euskal Herrikoak,
hemendik juañ zinañazten
gazte sasoikuak;
zuen bakante oiek
daude hornituak,
kanpotik etorri
zaizkigu nahikoak.

Ezinegon bera erakusten duten beste bertso hauek ere Pello Zabaletak
egin zituen.

ETA... GAUR?

GOIKO KALETIK GORA ERRENERI!

Eon gabetanik luzarun
aguro esan dezagun
Errenteriko erry'onetan
zer ekusten degun:
falta dira milla lagun.
batere ez da ezagun,
Parisa bañon aundiyago da
urte gutxi barrun!

Erriya ari da aunditzen,
ala zaigu iruditzen,
bañan alare bear bezela
ez gera kabitzen,

gañezka gaude bizitzen
ez al degu ekusitzen?
kalian ere len bezin lasai
ez gera ibillitzen.

Gu gaztiak giñanian,
Errenterriako kalian
beiratu gabe ibiltzen giñan
patxara ederrian;
gau automobil tartian
kontuz ibilli gaitian,
nolapait ere eskapatu naiz
orain bitartian

Automobil ta motuak
kale guztitan sartuak,
urte gutxitan azaldu dira
berebizikuak;
ez daude lengo kontak,
gure gazte denbokuak,
gaur bezin lasai ibiltzen ziran
garai artakuak!

Ekusten degu erriyan,
iskiñan eta erdiyan,
etxe berriyak egin dituzte
len etzan tokiyan;
alaz ere eskasiyan
gaude oraingo aldiyan...
miligarrorik ez da kabitzen
txepetxan kabiyan!

San Markosko menditxua,
ematen deu petxua,
udaberriyan kuku-soñuaz
zaude alaitsua;
Errenetriako txokua
daukagu leku goxua,
erri polit bat ikusgarriya
eta mamitsua!

Doinua: Aizak i, mutil mañontzi

Bertso horietan Pello Zabaletak garbi deskribatzen du urte gutxitan herriak izan zuen eraldaketa sakona. Handitze hark eta aldaketa haiek guztiak eragin zuzena izan zuten bizimoduan eta elkarbizitzan. Hori guztia baino lehen denek elkar ezagutzen zuten herrian, baino handik aurrera herritar asko beren artean arrotz bihurtu ziren. Horrek, bistan da, atsekabe sakona sortu zion bertsolariari, eta pentsatzekoa da gainerako herritarrei ere berdin gertatuko zitzaiela.

Baditu beste bertso batzuk herriko txoko ezagun bati jarriak.

MIKELA-ZOLUARI

Errenterian dagon
Mikela zolua,
beti aize gogorra
dabilen lekua,
neguan otza eta
udaran freskua,
badaki sar azitzen
patrikan eskua.

Ez dakienik bada
Non dan toki hori
erreparatu beza
eliz bazterrari,
zubi txiki bat badu
tunela dirudi,
beti han ibiltzen da
aize gaizto hori.

Bertsolariari buruzko azalpenak eman eta bertsoak landu eta ikasi ondoren ikasleak prest izango ditugu jarraian proposatzen diren jarduerak egiteko.

Behar bada, ikasleek bertso mundua aurrez ezagutu ez badute, komenigarria litzateke bertsoen ezaugarri nagusienak aipatzea: errimak, oinak, doinuak...

JARDUERA1: Ipiniko al zenuke oin bakoitza bere lekuan?

JARDUERA2: Zergatik uste duzu... Herriak Paris zirudiela? Pellok ez duela inor ezagutzen?

Bertsolariak ez du lehengo umorerik sentitzen?

Koadernoko 7. orrialdea.

JARDUERA3: Nahi izanez gero errima lantzeko atari aproposa da hauxe. Ez badira sekula errima bila aritu binaka edo hirunaka jar ditzakegu. Errima bat eman eta hitz katea osatzeko eska geniezaieke edo librean osatzeko hitz katea.

Lehiaketa moduan ere antola dezakegu. Hitz bat eman eta txandaka errima bera duten hitzak esateko eskatuz errepikatu gabe.

Ariketa hau ahoz zein idatziz egin dezakegu, unean lantzea lehenesten dugunaren arabera.

JARDUERA4: Amaitzeko, eska diezaiekegu ikasleei beraiek ere bertsoak botatzeko bizi diren herriari. Errazago izate aldera, doinu bera erabil dezakete. Nahi bada ikasleak binaka edo hirunaka jar litezke sorkuntza lan hori egiten.

Animatuz gero, bertso saio ederra antola dezakezue gelan, mailako beste gelarako edo ikasle txikiagoentzako.

Liburuxkako orrialde horretan aurkezten diren irudiei dagokienez, lehena Henry Wilkinsonek egin da 1836an. Hauxe da herriari buruz ezagutzen den grabatu zaharrena. Wilkinson, Wellington Dukearen agindutara euskal karlisten aurka aritu zen Ingalaterrako armadan sendagile-kirurgilari gisa. Gouache pintura, berriz, François Didier Petit de Meurvillek egin 1864an. Santo Domingon jaio zen, eta guraso frantziarrak zituen. 1857an Donostiara etorri zen Frantziako kontsul gisa. Guache teknika erabili zuen herriaren ikuspegi horretan; bertan, Oiartzun ibaiaren eta Zubitxo ubidearen bista ederra ikus liteke.

Herria kaputxinoetako gaintetik ikusten den litografia, berriz, León Laurent-ek egin da 1868an. Irudian ikus daitekeenez, ordurako antzinako badia hura errekatxo bat besterik ez zen. Geroago hura ere desagertu zen. Ezkerretara, eraiki berria zen trenbideko ikatz-lokomotorearen ke adierazgarria ikusten da. Atzean, herriko industria handia: Liho-oihalen lantegia (1845). Aurrealdean itxuratzen hasitako Zubitxo pasealekua, gero

Carretera kalea izango zena, eta egun Bteri kalea dena. Eskuinera, berriz, Madalen kalea eta Ermita ageri dira.

Azkenik, Antonio Got Intxaustik 1906an margotutako akuerala duzue. Bertan, parrokiak dorre berria du jada. Ordurako eraikiak zeuden Ongintza-babesetxea (1897), Ugarritzako lehenengo etxeak (1907). Pilotalekuaren aldamenean “Manufacturas El Yute” eta Niessenengo lehenengo instalazioak ikus daitezke. Eskuin aldean, Biteri kaleko zenbaki bakoitiak ageri dira, zenbaki bikoitiak, oraindik, eraiki gabe baitzeuden.

8. AUZOKA ANTOLATUA

Azken mendeetan herria handituz joan da. Garai batzuetan, neurri gabe, gainera. Auzoetan murgilduko gara buru-belarri eta haiek sakon aztertzeari ekingo diogu.

Herria auzoka antolatuta dago, eta auzoak kaleka. Kaleak, berriz, zenbakika: bakoitiak alde batean eta bikoitiak bestean.

Gelan auzo bat baino gehiagoko ikasleak izango ditugu, seguruenik. Beraz, egoera hori balia dezakegu ikasleak auzoka taldekatzeko, sailkapenak egiteko eta abar.

Liburuxkan auzo bakoitzaren gainean informazio zehatza eman baino nahiago izan dugu ikasleak beraiek auzoen inguruko informazioa jasotzea. Lan hori errazte aldera, informazioa biltzeko fitxak eta galdetegiak eskainiko dizkiegu. Bestalde, auzo bakoitzaren inguruko informazioa duzue material osagarrian eta baita auzo elkarte bakoitzarekin harremanetan jartzeko kontaktua ere.

Liburuxkan airetik ateratako argazkia duzue. Bertan, auzo bakoitzaren kokagunea adierazi dugu.

http://b5m.gipuzkoa.net/b5map/r1/eu/mapa/lekutu/Z_15955/geruza/ortofotoa helbidean duzue. Hor aurkituko dituzue, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak dituen txoribista eta baita mapak ere.

Sistemak eskaintzen dituen tresnei esker, nahi adina handitu dezakezue aztertu nahi duzuen zonaldea. “Bisore klasikoa” aukeran, hainbat urtetako mapak gainjar ditzakezue urteen joan-etorrian eremuak izan duen eraldaketa alderatzeko.

Arbel digitala erabiltzen baduzue material ona da taldean lantzeko, irudiak oso erakargarriak eta adierazgarriak baitira. Kontuan izan, bestalde, ikasleak papereko mapan kokatzeko zailtasunak izan ditzaketela oraindik, egin behar duten abstrakzio lana handia baita. Horientzat aukera errazagoa da beste hau.

Arbel digitalik ez baduzue, ikasleak binaka jar ditzakezue ordenagailuan eta talde txiki horietan lan egin dezakezue.

Beraz, lehenik eta behin mapekin jolas egitea proposatuko genizueke, ikasleak maparekin treba daitezen.

Auzoak definitzerakoan, wikipediak jasotzen dituen auzoetan oinarritu gara (<http://eu.wikipedia.org/wiki/Erreterria>).

Hala ere, beste sailkapen bat egin liteke auzo txikiagoak edo aurreikusiak dauden arren oraindik eraiki ez dituztenak barne hartzen dituen. Hala, Ondartxo, Alzate, Gamongoa, Esnabide, Markola, Tellerialde eta abar, esate baterako.

JARDUERA: Nor da nongoa? Irakurri argibideak eta ea asmatzen duzun!

NOR DA NONGOA?

AGUSTINAK:

Gure auzoa aldapatsua da
Ez da ibaia pasatzen
Komentu bat dago

KAPUTXINOAK

Auzoko etxeak altuak dira
Pasaiatik oso hurbil dago
Hamaika letrek osatzen dute izena

ONDARTXO

Auzoa txikia da
Ibaia igarotzen da
Hiltegi zaharra bertan dago

IZTIETA

Auzoko lurrak aspaldi itsas azpian zeuden
Kaleek Gipuzkoako herrien izena dute
Ibaia pasatzen da

ALABERGA

Etxeak baxuak dira
Auzoa bitan banatuta dago: goikoa eta behekoa
Zortzi letra ditu

GALTZARABORDA

Baseri batetik datorkio izena
Topoak geltokia du
Aldapatsua da

PONTIKA

Etxe altuak ditu
Zazpi letra ditu
Antzina galtzada erromatarra pasatu zen

BERAUN

Goren dagoen auzoa da
Futbol zelaia eta frontoia ditu
Autopista pasatzen da

GAZTAÑO

Letrak dira kaleen izenak
Trenbidearen beste aldean dago
Jende gutxien bizi den auzoa da

FANDERIA

Ubideak zeharkatzen du
Errota bat dago
Ibaiaren eta trenbidearen artean dago

OLIBET

Etxe altuak ditu
Tren geltokia du
Gaileta fabrika zegoen bertan

GABIERROTA

Ibaiko ahateen etxea dago
Gasolindegi zaharra dago

Ibai ondoan dago

LARTZABAL

Oiartzunekin muga du

Osasun etxea dago

Touring-eko futbol zelaia bertan zegoen

ZAMALBIDE

Nekazaritza-auzoa da

Nabigatzaile ospetsu baten izen bera du

Hainbat ikastetxe daude bertan

ERDIGUNEA

Eraikuntza historikoak daude

Ez dago parkerik

Kale gehienak oinezkoenak dira

ETXEBERRIETA/ CASAS NUEVAS

Ibaiaren beste aldean dago

Lantegi handi bat du

Kaleen izenak herriko nabigatzaileenak dira

Koadernoko 8. eta 9., orrialdeak.

JARDUERA2: Auzoak kaleka antolatuta daude. Gehienetan auzo bakoitzak gai baten gaineko izenak ditu. Zein gai dute eta zein auzokoak dira kale multzo hauek?

Koadernoko 8 eta 9., orrialdeak.

JARDUERA3: Sailkapenean sakondu nahi badugu eta ikasleen hiztegia aberastu, hortik abiatuta, KARIKATURA jolasa egitea proposa geniezaieke. Taldea handia bada talde txikiagotan bana ditzakegu. Hamaika era bururatuko zaizkizue hiztegi multzoak proposatzeko, librea edo gaiari lotuta.

Hik Hasi aldizkariak argitaratutako "69 abesti jolasteko" CDan duzue abestia eta jolasteko eraren proposamena "Jolasen Altxorra" DVDaren 6. kapitulan duzue jasorik.

9. GURE AUZOA

Herriko auzoak orokorrean landu ondoren, ikasle bakoitzak berea sakonago lantzeari ekingo diogu. Ondoren proposatzen diren jarduerak ikasleak banaka egin ditzake edo nahiago baduzue, talde lana lehenesten baduzue, auzo berean bizi diren ikasleen artean landu dezakete.

Mapan norberaren auzoa kokatu dugu aurreko jardueretan.

Lana errazte aldera, auzoaren behaketa errazteko material osagarrian aurkituko duzun galdetegia eskain diezaiekezu txantilo gisa.

Datu horiekin guztiekin, ondoren, beren auzoa gelakideei aurkezteko eska diezaiekegu.

Ondoren, kontuan izanik auzo bakoitzaren antzeko datuak izango ditugula bilduta, auzoen arteko alderaketa egin dezakegu: orokorra izan liteke edo zehazki landu nahi dugun arlo batekoa.

Informazioa horma-irudietan jar dezakegu, informazioaren arabera multzoka sailka ditzakegu auzoak, taulak osa ditzakegu, jasotako informazioaren ondorioak atera ditzakegu eta abar. Ikusten duzuenek, matematikako, logikako eta hizkuntzako hainbat arlo lantzeko egokiak dira jarduera hauek.

JARDUERA: Lortu zure auzoari buruzko ahalik eta informazio gehiena. Horretarako lagungarria izango zaizu taulan jasotako datuak osatzea.

Material osagarria: [Galdetegia](#)

10. ALDATUZ DOA

Auzoa ez da beti orain ezagutzen dugun bezalakoa izan. Auzoa aspaldi eraikitakoa izatea ere gerta liteke. Haren ordez, lehenago zer zegoen jakitea interesgarria litzateke.

Gerta liteke ere auzoa aspaldi eraikitakoa izatea. Urteen joanean aldaketa asko jasango zituen, seguruenik.

Kasu batean zein bestean, jarduera honetan ikasleari proposatzen dioguna da lehengo eta oraingo argazki bana itsastea.

Aldizkari zaharretan, interneten eta abar aurki daitezke argazkiak. Berria, berriz, beraiek egin dezakete.

Ondoren, nahi izanez gero, ikasleek ekarri dituzten argazkiekin erakusketa moduko bat egin dezakegu.

JARDUERA: Auzoak ez du beti gaur egun duen itxura izan, aldatuz doa... Itsas itzazu auzoaren (edo auzoa egon aurretik zegoenaren) argazki bat eta gaur egungo argazki bat.

Koadernoko 10. orrialdea.

11. ZER OTE ZEGOEN AUZOA DAGOEN LEKUAN?

Herriko historian arakatzea proposatu nahi diegu jarraian. Ba ote dakite auzoa eraiki zuten lekuan aurretik zer ote zegoen?

Aukera bat liburuetara edo internetera jotzea da. Bestea, ordea, auzoari buruzko gauzak dakien norbaitengana jotzea da. Horretarako, auzo elkartera jo liteke, auzoko historia aztertu duen norbaitengana edo auzoan denbora luzea bizitzen daraman norbaitengana.

Gelako ikasle guztiak auzo berekoak badira, edo dituzun ikasleak auzo gutxi batzuetatik baldin badatoz, gelara gonbida ditzakegu lagun horiek.

JARDUERA: Zer ote zegoen hemen auzoa eraiki aurretik? Ikertu eta kontatu!

Elkarrizketatu auzoari buruz dakien lagun bat.

Koadernoko 10. orrialdea.

12. GERTATU ZEN GURE AUZOAN...

Ikasleak galdezka ari direla agian jakingo dute auzoan gertatutako bitxikeriaren bat, istorioren bat, pasarteren bat... hori jasotzeko txokoa proposatu nahi diegu hemen.

JARDUERA: Behar bada norbaitek kontatu dizu auzoan gertatutako pasadizo, istorio, bitxikeri edo beste zerbait. Hauxe duzu txokoa hura kontatzeko. Auzoan gertatu zen...

Koadernoko 10. orrialdea.

13. KALEENTZAKO IZEN BILA

Lehen esan dugu auzoak kaleka antolatuta daudela. Gehienetan, auzo bakoitzarentzat gai bat aukeratzen da eta multzo horretakoak izaten dira kaleei ematen zaizkien izenak.

Esaterako, Galtzarabordako kaleek mendi izena dute, eta Iztietakoek, aldiz, Gipuzkoako herrienak.

Ikasleei proposatuko diegu bere auzoko kaleen zerrenda egitea. Zerrenda ikusi ondoren, kale horiek denak zein multzotakoak diren edo zein gaitakoak ondorioztatzeko eskatuko diegu. Azkenik, kale berriak sortzekotan zein izen emango liekeen idazteko eskatuko diegu.

JARDUERA: Auzoko kaleek zein izen dituzte? Aipatu haietako batzuk. Kale berriak egingo balituzte zein izen emango liekete?

Koadernoko 10. orrialdea.

14. INKESTA: GUSTURA BIZI AL DA JENDEA AUZOAN?

Jarduera honetan auzotarrek auzoari buruz duten iritzia biltzen jarriko ditugu ikasleak. Horretarako galdera erraz bat proposa diezaiekegu: “Gustura bizi al da jendea auzoan?”

Inkesta itxia proposatu diezaiekegu; hau da, 50 laguni egitekoa, adibidez. Hainbat auzo izango ditugunez, interesgarria litzateke ondoren emaitzak alderatzea. Nahi bada gehiago zehaztu daiteke, inkesta egiterakoan emakumeak/ gizonak, gazteak/adinekoak eta abar bereizteko eska geniezaieke.

Ehunekoak menperatzen badituzte, datuak ehunekotara ere pasa daitezke.

Liburuxkan baiezko eta ezezko erantzunak adierazteko barrak aurkezten dira. Bakoitza lortutako emaitzen arabera koloreztatzeko eskatuko diegu.

JARDUERA: Galdetu auzokideei ea auzoan gustura bizi diren ala ez. Erantzunak bildu eta ondoren koloreztatu BAI eta EZ barrak izan dituzten erantzun kopuruaren arabera.

Koadernoko 11. orrialdea.

15. GUSTUKO DITUDAN LEKUAK/ GUSTUKO EZ DITUDAN LEKUAK

Auzoa arakatzan jarraitzen dugu. Orain gustuko duten lekuak eta gustukoak ez dituztenak zerrendatzeko eskatuko diegu.

JARDUERA: Idatzi auzoan gustuko dituzun eta gustuko ez dituzun lekuak.

Koadernoko 11. orrialdea.

16. AUZOA HOBETZEN

Gustukoak dituzten eta ez dituzten lekuak izendatu ondoren, beste hausnarketa bat proposatuko diegu. Auzoa hobetzeko zer jarri eta zer kenduko luketen, hain zuzen.

Hausnarketaren ondoren auzoa hobetzeko hiru proposamen egiteko eskatuko diegu.

Herriko auzo asko ez ziren hasiera batean gaur ezagutzen ditugun bezalakoak. Eraiki zituztenean etxeak bata bestearen gainean pilaturik, berdegunerik eta parkerik gabe, espaloirik gabe ere egin zituzten. Haietan bizi baldintzak eskasak ziren, eta horrek bizikidetzan ere izan zuen eragin zuzena.

Auzotarrek auzoetan bizimodua hobetzeko proposamenak egin zituzten. Manifestazio eta mobilizazio jendetsuak egin ziren eta, pixkanaka, auzoak hobetzen joan ziren.

Egin zituzten proposamenen artean, itxitako lantegiek zituzten orubeak berdegune eta parketarako erabiltzea zegoen.

Horrela, Musika plaza, Gernika plaza, Niessen eta beste hainbat leku eskuratu ahal izan ziren.

JARDUERA: Auzoa hobetzeko proposatzen ditudan hiru neurri:

Koadernoko 11. orrialdea.

Zalantzarik gabe informazio piloa bilduko zuten auzoei buruz. Horrekin guztiarekin erakusketa antolatu dezakezue ikastetxean bertan edo ahal eta nahi izanez gero, auzo elkartekoekin harremanetan jarri eta auzo elkartean ipin dezakezue bildutakoa. Ziur auzotarrentzat oso interesgarria izango dela gure lana. Harremanetan jartzeko, jarraian duzue auzo elkarteekin harremanetan jartzeko kontaktuak.

17. KONTAKIZUNAK

MARKOLAKO IRATXOAK

Oiartzungo muga ondoan dagoen Markola baserrian XVII. mende amaieran gertatutako zenbait pasadizo harrigarrik zenbait pasadizo harrigarrik mila gisako esamesa eta berritsukeria txoroak aterarazi zizkien ibarreko eta herriko jende sinesberei: gauero-gauero baserrian sorginak edo iratxoak agertzen zirela.

Batzuen ustez, Zugarramurditik alde egin behar izan zuten sorginak ziren; beste batzuen ustez, ordea, atso oker batek baserriari begizkoa egina ziola uste zuten, munduko zorigaiztoko guztiak haren gainera erakarriz. Edo, agian, artzainak ikaritzen zituen Basajauna zen, edo Basanderea, lamiak, akaso...

- Begira, Joanes, iratxoak etortzen dira hona gauero... - esaten zion etxeakoandreak senarrari.
- Iratxoak! Zer diozu, baina -hark.
- Baietz eta baietz, nik ikusten ditut eta, aspaldian, iratxo horiek.

Maria Angelak ikusten zituen iratxoak, baina senarrak ez zion kasurik egiten. Beldurraren beldurrez gaixotu eta flakaturaz joan zen, harik eta Joanesek ere iratxoetan sinistu zuen arte.

Bi konkor zituen ikusiak Angelak: bata asto itxurakoa; bestea, txakur tankerakoa.

Joanes gauerdian karobira lanera joan orduko hasten ziren bi konkor haiek baserrira inguratzen. Eta, eskuetan zeramaten zerbaitekin argi-seinaleak egiten zituzten. Ondoren, astoa sukaldera sartzen zen tximiniatik behera. Sartu eta argia botatzen zuen, eta sukaldeko txoko batean edo ohean uzkuriturik zegoen Angelari zuzendu eta hizketan hasten zitzaion. Hitz egiten zekien astoa zen, nonbait!

Angela, bitartean, izuak akabatzeko zorian! Ordu pare bat horrela egin ondoren, iratxoa, giza-astoa, edo dena delakoa bere lagun "txakurrarengana" joaten zen.

Gau batean, ordea, Joanes etxean gelditu zen gertakari hura bere begiz ikusteko asmoz. Baserriaren beheko bizitzan zuten logela senar-emazteek. Goizeko hirurak aldera, sukaldetik zetorren zarata entzun zuten. Agidanean, norbait eskaileretan behera jaisten ari zen.



Jaiki zen Joanes eta eskopeta harturik iratxo haren bila abiatu zen. Honek, zerbait susmatuta edo, ihesari eman zion arrapaladan.

Joanesek zerbait erdikusi ahal izan zuen ilunpetan leihotik begiratu zuenean: txakur bat lehenik, eta berehala, harengana korrika zihoan astoa. Biek hitz batzuk esan zizkieten elkarri. Ondoren, argi-izpi batzuk bota zizkieten elkarri. Joanes, orduan, ausartki... leihoa itxi, behera jaitsi eta ohean sartu zen.

- Ikusi al dituzu Joanes? –galdetu zion Anjgelak.
- Ikusi ditut eta baita izutu ere! – erantzun zion.

Angelak, lasaiturik, senarra besarkatu zuen. Honek, ordea:

- Zaude geldirik emakumea! Ez baitugu besarkatzeko tenorea!

Iratxoak, ordea, ez zeuden izututa. Hurrengo gauean, Joanes karobian zela itzuli ziren berririo. Lo zegoen ordurako Angela, ez horregatik oso lasai, izan ere pausoak sumatu baitzituen goiko bizitzan.

- Ai ene! Horra iratxoa berriz ere!

Beheko bizitzara jaitsi zen iratxoa. Astoa zen. Angela ohe gainean eseri zen ikaraturik.

- Ez izutu emakumea- esan zion, ni naiz eta, ni... maite zaitudan nerau, izarrak baino politagoa, Artizarra baino ederragoa zara eta... Joanes zure senarra, inozo samarra da eta zu bera bezain tuntuna, berarena izanik... nirea izan behar duzu zuk, nirea...

Angelak ez zuen aditzen asto haren maitasun hizketa. Izutu eta korderik gabe zegoen ordurako. Iratxoak orduan bekokian muxu bat eman eta alde egin zuen. Bere lagun zakurrarekin elkartu eta alde zurratik aukeratuta zuten abere hizkera batez mintzatu ondoren alde egin zuten. Eta horrela egin zuten gau batean eta baita besteetan ere.

Joanes bere lagun hurkoenei kontatu zien gertatutakoa. Zirt edo zart egiteko garaia heldua zen. Gamon epailea jakinaren gainean ipini zuten. Honek, herriko eta Oiartzungo bizilagun batzuk makila bana hartuta Markolako baserri atarian zelatan jar zitezen agindu zuen. Gau hartan aitzakia bat hartuta senar-emazteek herrira alde egin zuten.

Goizeko hiruretan egin zuten bere agerraldia iratxoek, ohi bezala. Zelatariak, makilak gertu eta urduri xamar, begira zeuden. Halako batean mukulu bat

sumatu zuten ilunpean: astoa zen hura, eta berehala beste bat, txakurra, noski. Eta ez bat eta ez bi, makilak dantzarazten hasi ziren haien gainean, eta hantxe hasi zen astoa ere ojuka eta alarauka, mindurik, barkatzeko eta barkatzeko eskatuz.

- Zer barkatu eta zer barkatu ondo!

Eta segi, jo eta ke, makilakaden zaparrada, haren bizkarra ongitxo berotu arte. Txakurrari beste hainbeste gertatu zitzaion.

Epailearen aurrean eramanak izan ziren, eta bertan jatorrizko itxura hartu zuten, giza itxura. Markolatik hurbil bizi ziren bi gizaseme ziren.

Garai haietan ez zen zinema aretorik eta zerbaitean igaro behar zuten denbora... iratxoek jolasa asmatu zuten. Baita beren kalterako! Joan Inazio Lekuona zen bata, astoarena egiten zuena, Angelaren maitalea, alegia. Bestea, berriz, Antonio Mendizabal izeneko bat.

Kartzelara eraman zituzten. Han zegoen bitartean bertsoak bidali zizkion Lekuonak Angelari; benetan maitasunez betetako bertsoak.

Markolako andriari,
bialtzen diot goraintzi.
Hura ere ni ekustera
etorri al baledi!
Ni kartzelan egonagatik
egonen nintzala kantari.

Markolako iratxoak ez ziren harez gero sekula gehiago agertu.

Gamon epaile jaunak emandako epaia zela eta, ezin zitezkeen Markolako baserri aurretik igaro baimen berezirik gabe anima ezkila jo ondoren.

Eta, diotenez, handik gutxira hil zen Angela, hartutako izualdiak zirela medio.

18. IRTEERA: AUZOETAN ZEHAR BILA

Irteerari Fanderiako auzoan eman diogu hasiera. Hala ere, zuek egokiagoa ikusten duzuen edo hobe datorkizuen lekutik has dezakezue.

Fanderiako auzoan, etxeek osatzen duten bi lerroen artean parke moduko bat dago. Erdetik ubidea pasatzen da. Ubidea, gaur egun bere ibilbide ia osoa lur azpitik egiten badu ere, Fanderiatik pasa ondoren Zumardiraino heltzen da.

Han, ubidearen gainean aurkituko duzue errota.

1. FANDERIA: ERROTA

Garrantzi handiko ingurua izan zen. Mendeetan zehar hainbat industria izan dira, gaur egun ikusten dugun errota izan delarik azkena.

XIX. mende hasieran eraiki zuten Fanderiako errota Errenterriako Udalarena da. Bertan, bisitariei udalerrriaren ondare kultural, etnologiko eta tekniko-zientifikoa erakusten zaie.

Errota jardunean aritu zen azken urteetan, publizitate lema bitxia eta ezaguna izan zuen: “Fanderiako pentsuak, ez merkeenak bai onenak”.

Balia dezakegu lema hori ikasleek berek beste batzuk sor ditzaten.

Bisita doakoa den arren, hitzordua egin behar da Errenterriako Udaleko Kultura sailera deituta (943 449606) gutxienez 24 orduko aurrerapenarekin.

Errota ikusi ondoren, Fanderiako frontoi eta igerilekuaren ondotik pasata, Agustinetako auzora igotzeko igogailua eta eskailerak topatuko ditugu. Bertatik igo eta Fanderiako eta Gabierrotako auzoetako ikusmira interesgarria izango dugu.

Aurrera jarraituz, Agustinetako auzoa zeharkatuko dugu. Frontoiaren ondoan pasa, parkea gurutzatu eta gora eginez berehala topatuko duzue gure bigarren norakoa.

2. AGUSTINAK: HIRUTASUNAREN KOMENTUA

Hirutasunaren komentua 1543an eraiki zen. Hiru asteasuar izan ziren, Catalina, Barbara eta Mari Juan agustinak, hura sortu zutenak. Bekaizkeria eta prozedura arazoak medio, Udala horren aurka azaldu zen, haren sorrerak ez

baitzuen udal agintarien baimenik. Udala orduan auzitan sartu zen monasterioa eraitea lortzeko asmoz, eta komentuarien aurka jardun zuen 1604ra arte iraun zuen auzi luzean.

Komentuko mojak izan ziren, hain zuzen, inguru horietako lehen biztanleak.

Komentuarien azpialdetik doan bideari jarraituz, Lousada kalera irtengo gara. Ezkerretara ikusiko dugun plaza zeharkatu eta handik abiatzen den edozein bidexkatik gora eginez Arramendira helduko gara.

3. GAZTAÑO: ARRAMENDIKO KASKOA

Arramendi 81 m. dituen muinoa da. Beraungo eta Altamirako muinoekin batera, herria inguratzen du. Herrigunean urbanizatu gabe dagoen eremu bakarrenetakoa da, bestalde.

Bere kokapena oso garrantzitsua da. Oiartzun ibaiaren bidea eta Pasaiako portuan duen itsasoratzea zaindu daitezke bertatik.

Arrazoi hori dela medio, historian zehar leku esanguratsua izan da. Erdi Aroa arte zati horretan nabigagarria zen ibaiaren zatia zaintzeko lekua zen, zaindu beharreko ibilbide komertziala baitzen.

Erdi Aroan nekazaritzarako eta abeltzaintzarako izan zen garrantzitsua. Izan ere, gaztainondoak eta sagarrondoak aldatu baizituzten eta behi-aziendentzako larreak sortu zituzten.

Bigarren karlistadan, karlistak Arramendiko sagarrondoan artean babesten ziren gaur herria hartua zuten liberalak erasotzeko. Hori zela eta, 1874an liberalek sagastia mozteko eta muinoan gotorleku bat eraikitzeko agindu zuten. San Markoko, Txoritokietako eta Darietakoein batera herria karlistetatik babesteko eta liberalek hartuak zituzten beste herriekin komunikazioa mantentzeko asmoz.

Gotorlekuak bere inguru osoan lubakia zuen.

Gaur egun atsedenekua den eremu honetan, gotorlekua egon zen. Oraindik ere haren aurriak ikus ditzakegu bertan.

Atsedenekuan iturria, mahaiak, aulkiak eta zabuak aurkituko dituzue. Leku egokia da hamaiketakoa edo bazkaria egiteko.

Kaskoari buelta ematen dio bideak. Ederki ikusiko ditugu gain hartatik

Agustinak, Gaztaño, Pontika, Beraun, Galtzaraborda, Alaberga, Iztieta Kasko Zaharra eta Erdialdea.

Bideak badu adar bat Pontika aldera jarraitzen duena. Maldan behera hasi bezain laster “Belaunaldien Basoa” topatuko duzue. Bidean, eskuinetara. Baso horretan, jaiotako haur bakoitzeko zuhaitz bat aldatzen da. Zuhaitz bakoitzak haurraren izena du. Baliteke zuen ikasleetako zenbaitek zuhaitza aldatua izatea han.

Bideak, Zamalbidera doan bidera eramango gaitu. Hemen hiru aukera proposatzen dizkizuegu.

A. INDUSTRIALDEETATIK BARRENA

Errepidera heltzean, ezkerretara eginez, Zamalbidera doan bidetik aurrera eginez, laster topatuko dugu trikuharria duen biribilgunea. Biribilgunean ezkerretara Masti-Loidiko industrialdean barneratuko gara. Berehala udaltzaingoa topatuko dugu. Aurrerago, herriko beste hainbat industria eta enpresa aurkituko ditugu.

Bide zuzenaren erdialdean, errekaen beste aldean, Loidi baserri eraberritua ikusiko dugu.

Aurrerago, beste biribilgune batera helduko gara. Bertatik, Zamalbidera doan bidearekin bat egingo dugu berriro, Isatseko maldaren behealdean, hain zuzen.

Biribilgunean ezkerretara egiten badugu, industrialdetik jarraituko dugu, eta autopistako zubi berriaren azpitik aldapan gora abiatuz, Egiburuberri industrialdean barneratuko gara. Bertatik, Zamalbide aldera jarraitu dezakegu eta San Markoko gotorlekura joan edo Zentolenetik behera erdialdera joan gitezke.

Biribilgunean aurrera egiten badugu, aldiz, bidea gurutzatu eta gora egiten duen bidea hartuz, berehala Txirrita-Maleo industrialdera joango gara.

Ezkerretara Txirrita baserria ikusiko dugu.

Aldapan gora eginez, San Markoko bidegurutzeraino iritsiko gara.

Puntu horretan, ibilbideko beste aukeretako batekin jarrai dezakegu, San Markoko gotorlekura joateko aukera, hain zuzen.

B. KIROL INSTALAZIOAK ETA GOTORLEKUAK

Errepidera heltzean eskuinetara eginez gero, laster Pontikara helduko gara. Aurrera jarraituta, Beraun aldera igotzen den aldapa topatuko dugu. Hortik gora joango gara.

Aldaparen erdialdean, ezkerretara, frontoi estalia ikusiko dugu. Gaur egun, eskubaloi-partida asko eta entrenamenduak bertan egiten dira. Aurrerago, ia gora heltzen garenean, atletismo-pista eta futbol-zelaia ikusiko ditugu.

Gorago jarraituko dugu, ordea. Muinora iritsitakoan, biribilgune bat aurkituko dugu. Han, ezkerretara egin eta autopista gaineko zubia igaroko dugu. Handik aurrera, Langaitz ikastola alde batera utzi eta eskuinaldeko bidea jarraituko dugu San Markoko gotorlekuraino.

SAN MARKOKO GOTORLEKUA

San Markoko gotorlekua 1888an eraiki zuten. Kokalekuari dagokionez, Oarsoaldea eskualdeko behatoki naturala da eta bertatik Kantauriko kostaldea ere ikus daiteke.

Txoritokietako gotorlekuarekin batera eraiki zuten, eta biak Pasaiako portua, Donostia eta gure herria defendatzeko “Oiartzungo lubaki eremua” egitasmoaren parte ziren.

Orain, garrantzizko eremu turistiko-kulturala izateko eraberritzeko lanak egin dira bertan.

Bazkari legea egiteko leku aproposa da inguru hau. Gotorlekuaren inguruan mahaiak eta aulkiak daude eta baita iturria ere.

Nahi izanez gero, Txoritokietako gotorlekura joan gintezke. Kontuan izan gotorleku hori egokitu gabe dagoela, eta, beraz, ikasleei arretaz ibiltzeko eskatu beharko diegula.

Beste aukera bat, Beraungo auzoa zeharkatu, eta Parke kaletik Galtzarabordako topo geltokira jaistea da. Haren ondoan topatuko dugu kiroldegia.

C. KULTURA-AZPIEGITURAK

Errepidean eskuinaldera eginez, laster Pontikako auzora helduko gara. Aurrera jarraitu eta Madalenako ermitaraino iritsiko gara. Madalen kaletik aurrera egingo dugu. Kalearen hasieran, eskuinera, turismo bulegoa eta



liburutegia dagoen etxea aurkituko ditugu. Urte luzeetan, etxe hori Guardia Zibilararen kuartela izan zen. Haien ondoren, Polizia Nazionalea egon zen. Alde egin zutenean, 1979an, hutsik geratu zen. Urte batzuk beranduago, nolabait egokitu eta musika eskola jarri zuten bertan. Azkenik, gaur egun eskaintzen dituen zerbitzuak eskaintzeko egokitu zuten.

Maria Lezo kaletik aurrera jarraituko dugu, Niessen plazaraino.

NIESSEN

Gaur egun ezagutzen dugun eraikuntza eta plaza hori, garai batean Niessen izeneko lantegi handia izan zen. Gaur egun, esan dezakegu, herriko kulturaren bihotza dagoela bertan.

Alde batetik, Kontserbatorioa dago, Udal Musika Eskolarekin eta Udal Dantza Eskolarekin.

Bestalde, Xenpelar Arte Plastikoen Udal Tailerra Niessenen kokatuta dago.

Gainera, herriko auditorio bakarra ere bertan dago. Auditorio horretan, dantza, musika, zinema, eta antzerki ikuskizunak eskaintzen dira herritarrentzat.

ERESBIL

Niessenen aurkitzen da Eresbil musika artxibategia. Bertan, Euskal Herriko musikarien lanak gordetzeko eta zabaltzeko lan egiten dute.

Interesa baduzue bisita daiteke. Haien ordutegia astelehenetik ostiralera artekoa da, goizeko 10:00etatik 17:00etara. Komeni da, hala ere, alde aurretik bisita adostea. Horretarako telefono honetara deitzea nahikoa izango duzue: 943 000 868.

Niesseneko eraikuntzan daude, baita ere, egun herrian dauden zinema-areto bakarrak. Garai batean, hiru zinema-areto izan genituen herrian. Haiek desagertu ziren, eta urte luzeetan zinema-aretorik izan ez genuen arren, gaur egun Niessenen ditugu hainbat areto txiki.

Zinema dagoen lekuan, hura eraiki arte, Udal Frontoi zaharra zegoen.

Azkenik, Niessenen azpialdean Udal Merkatua dago: arrandegiak, harategiak, fruta-dendak, baserritarrak eta abar. Haiek ikustea ere interesgarria litzateke.

Niessenetik irten eta Biteri kalean zehar aurrera joatea proposatzen dizuegu. Oraingoan Iztiataraino, edo zehatzago esanda, Ondartxoraino joango gara. Han, Udal Hiltegi zaharra, edo mataderoa, aurkituko dugu.

UDAL HILTEGI ZAHARRA

Urte asko dira hiltegia hutsik dagoela. Hala ere, garai batean oso garrantzitsua eta funtsezkoa zen hiltegia herriarentzat. Historian zehar beste kokaleku zenbait izan ditu, horren aurrekoa, Biteri eskolen ondoan dagoen Fernandez de Landa plazan.

Garai batean, hara eraman behar zituzten hiltzera herritarren elikagai izango ziren aziendak.

Dударик gabe eraikuntza ederra izaten jarraitzen du hiltegi zaharrak. Gaur egun, Hibaika arraun elkartearen egoitza da, eta herriko Arraun Eskola ere bertan dago. Izan ere, garai batean, herriak Hibaika izeneko traineru ospetsua zuen, estropada entzutenetsuenetan parte hartzen zuena, gainera.

Koadernoko 12. eta 13. orrialdeak.

19. GURE BASERRIAK

XV. mendean -1450. urtetik aurrera, hain zuzen-, nekazaritzaren, industriaren, merkataritzaren eta arrantzaren hedapena gertatu zen.

XVII. mendea, ordea, gainbehera garaia bihurtu zen, garai hartako ekonomia sektore tradizionalen deuseztatzeak ekarritakoa.

Garai horretan, Ameriketatik artoa ekarri zuten Gipuzkoara, eta laster zabaldu zen herrialde osoan. Hura lantzen hastearekin eta harekin batera hasi ziren teknika berrikuntzek ere (laia, luberritze sakonagoa dakarrena; karea ongarrigisa erabiltzea) zerikusia izan zuten nekazaritzak pairatu zuen aldaketa sakonarekin.

Langileak, pixkanaka, beren jardunbide bereziak utziz joan ziren lehen sektorean, nekazaritzan eta abeltzaintzan, aritzeko.

Ondorioz, XVII. mendea landak markaturiko mendea izan zen.

Nekazaritzarekin batera, burdin eskulanak, ontzigintzak eta abarrek bizirik



jarraitu zuten baina indar askoz gutxiagorekin, batez ere eskaerak behera egin zuelako.

Olen kopurua mantendu bazen ere, ekoizpen txikiagoa zuten, merkatuaren eskaerari egokitzeko; herriko itsasontziek itsasoak zeharkatzen jarraitu zuten baina gero eta gutxiago ziren, eta merkataritzako joan-etorriak behera egin zuen, portuaren utzikeriak edukiera handiko ontzien sarrera eragozten zuelarik. Ontzigintzak ere, gelditu ez zen arren, ekoizpen apala zuen. Herriko ontzioletan 1578 eta 1611 urte bitartean 83 ontzi eraiki baziren, 1614 eta 1652 urte artean 11 besterik ez ziren izan eraiki zirenak, eskaera pribatua, eta bereziki estatuarena, txikiagoa zelako.

Gainera, 1658rako Madalenako errebaleko ontziola erabat utzia zegoen eta bere kanalak eta pasabideak itxita.

Hala ere, nekazaritzaren iraultza horrek berarekin ekarri zituen egiturazko zenbait tentsio, eta horiei ezin izan zitzaaien irtenbiderik eman 100 urte beranduago arte. Hazkunde demografikoak lur gosea ekarri zuen, biztanleria ugaltzarekin batera baliabideak ere ugaltu egin baitziren eta, lurra zenez nagusia, desorekak nabarmenago agertu ziren erritmo demografiko gero eta neketsuagoaren bidez.

Laborei emaniko esparruaren zabalkundeak eman zion erantzuna arazoari, baina ohiko baso eta artzaintza baliabideekin talka egin zuen, gero eta lur gehiago behar baitzen ereiteko.

Laborantza esparrua irregularki aprobetxatua zegoen, herritik hurbil zeuden behe lurretan eta errepidearekin komunikatzen zuen ardatzaren inguruan batua; hori guztia bai naturak –lurren garaiera eta aberastasuna– bai politikak lagundurik, lurrik gehiena herri-lurra zelako. XVIII. mendean 400 hektarea laboratu inguru zenbatzen ziren, hau da udalerraren %13, gainerako %87 basoz eta txaraz osatua zegoen.

Une horretan laurogei baserri zeuden, gehienak behe-solairu batez, solairu batez eta estalpez osatzen ziren. Behean ukuiluak eta sukaldea zeuden; goian logelak eta estalpean uzta jasotzen zen. Barneko hornikuntza murrizak berrikuntza nagusi bezala tximiniaren orokortzea ezagutu zuen, ordura arte oso bakan ikusten baitzen gisa hartako etxeetan.

XVII. mendearen bigarren erdialdean, herrialdeko gainerako herriek egin zuten gisara, ihitokiak eta ur hegiak lehortzeari ekin zioten: Madalenako errebala, Ugarritza, Morrongileta, Fanderiako alderdia eta abar elkarte batzuen esku jarri ziren haiek lehortu, hesitu eta etekina emateko moduan

jarriko zituztela hitz eman baitzuten. Izan ere, herrigunetik hurbil zeuden eta beren estaldura begetala galdu zuten esparruak laboratzen hasi ziren.

XVIII. mendean, baina, artoarekin hasitako garapena bere mugara iritsi zen. Ekoizpen handiagoaren beharrak larreak, eta ondorioz, abeltzaintza, arriskuan jarri zituen. Mende amaieran patata lantzen hasi ziren eta horrek nolabaiteko arnasbidea ekarri zion nekazaritzari.

Ondoren, herriak jasan zuen neurrigabeko handitzeak arriskuan jarri zuen nekazaritza. Lurrak behar ziren eraikitzeko eta azpiegiturak egiteko, eta larreak eta baratzeak desagertuz joan ziren. Hala, 1971 eta 1975. urte artean nekazaritzak atzera egin zuen nabarmen. Ordurako, nekazaritza urte askotan gure arbasoen jardunbide nagusia izandakoaren lekuko besterik ez zen.

Industria zen herriaren sustatzaile ekonomiko nagusia. Haren itzalean, hirugarren sektorea, zerbitzuetakoa, indartzen ari zen.

1972ko nekazaritza erroldak 133 nekazaritza ustiapen adierazten ditu, hamar urte lehenago adierazitako 296 ustiapenen aldean. Herrialde osoan gertatu zenaren antzera, herriak ere joera erabat atzeragarria agertu du nekazaritzan.

1982ko erroldan 163 ustiapen dira 2.505 ha dituztenak; 1989koan, aldiz, 159 dira, 2.631 ha-ko azalarekin.

Lehen sektorean 1982an diharduen jende kopurua ere oso urria da, 350 pertsona. Kopuru horri, ordea, baserriko emakumezkoen lana eta aldibaterako lanek behar duten eskulana gehitu behar zaio.

Liburuxkan udalerriko mapa duzue. Bertan, herriko baserrietako batzuk kokatu ditugu. Alboko zerrendan duzue izena kokapen zenbakiarekin. Eraitsita daude batzuk, horiek ikur batez daude adierazita.

Haien lekuan, auzoak, industrialdeak eta abar egin dituzte. Baserri haietatik hartu dute izena askok.

1. ABRINGOIKOA
2. AIZPITARTE
3. ALABERGA
4. ALDURA
5. AÑABITARTE
6. ARGORRI
7. ARTAMUGARRIBEKOA
8. ARRAMENDI ×

9. AZARAÑETA ×
10. BASANOAGA ×
11. BELABARATZ
12. BERAUN ×
13. BORDONDO
14. EGILUZEMENDIKOA
15. ESNABIDE
16. FANDERIA ×
17. FRANTZESILLAGAZARRA
18. GABIRIERROTA ×
19. GALTZARABORDA ×
20. GAMONGOA
21. GAZTAÑEDO
22. GAZTELUTXO
23. INTSUSAGA
24. ITURRALDE ×
25. LANTERNETA
26. LARTZABAL ×
27. LISTORRETA
28. LOIDI
29. MALEO
30. MARKOLA ×
31. MASTI ×
32. MORRONTXO
33. OTZAZULOETA
34. LUBELTZA ZAHAR ×
35. PONTIKA ×
36. SALBATORE ×
37. SORGINZULO ×
38. SUSPERREGI
39. TXIRRITA
40. VERSALLES ×
41. SENPERELARRE
42. ZAMALBIDE
43. ZENTOLENEA

*JARDUERA: Zerrenda honetan hainbat baserriren izenak dituzu. * ikurra dutenak eraitsiak daude. Kolorezta itzazu mapan gorriz.*

Koadernoko 14. orrialdea.

20. INDUSTRIALDEAK

XIX. mendean lantegiak zabaltzen hasi zirenean, lehenak ibaiaren inguruan finkatu ziren. Urte haietan industriak izan zuen bizkortze ikaragarriak biztanleak ugaritu zituen.

XX. mendean zehar, jada, etxeak eta lantegiak anabasean ugaritzen ari ziren. Etxepe asko, gainera, tailerrak eta lantegi txikiak ziren.

XX. mendeko 80ko hamarkadak krisi ekonomikoa ekarri zuen eta lantegi eta tailer asko itxi egin behar izan zituzten.

XX. mendearen amaieran hainbat industrialde sortu ziren eta bertan pilatu ziren lantegi eta tailer gehienak. Hiru dira sortu ziren industrialdeak: Egiburuberri, Txirrita/Maleo eta Masti/Loidi.

Gaur egun herriko industria eta tailer ia guztiak bertan daude kokatuak.

Arbel digitalarekin lan egin nahi baduzue, azpian duzuen atari horretan aurki ditzakezue herriko industrialdeak. Kurtsorea lantegi bakoitzaren gainean jarriz gero, lantegiaren izena eta helbidea ikusiko dituzue pantailaren eskubialdean.

http://www.mapako.eu/berri/index_eu.html

JARDUERA: Lantegiak industrialdeetan kokaturik daude. Herrian hiru industrialde ditugu. Izen hauen artean nahastu dira. Ea aurkitzen dituzun.

Koadernoko 15. orrialdea.

21. UDALA

Udala, estatuaren administrazio maila behearena da; udalerrri bat administratzen duten pertsonen multzoa, alkateak eta zinegotziek osatua.

Gure garaietan hauteskundeak egiten dira lau urtean behin udal ordezkariak aukeratzeko. Ez da horrela izan, ordea, garai guztietan.

Hiri-Gutuna izan aurretik, kontzeju irekiak gobernatzen zuen herria. Bertan, herritar guztiak biltzen ziren eta erabakiak hartzeko orduan denek parte



hartzen zuten. Adostasunik ez zegoenean, herriko zaharrenek esandakoa entzun ondoren hartzen zen erabakia.

Berehala, ordea, kontzeju txikietara pasa ziren. Talde txiki batek hartzen zituen herriko eta bere lurreko politika, ekonomia, jendarte, kultur eta erlijio antolaketa mailako erabaki guztiak. Gainerako herritarrek, kasu oso larrietan eta herriaren akordio handiak baiesteko bakarrik parte hartzen zuten.

1500. urteko ordenantza batek jasotzen duenez, urtarrilaren 1ean, meza nagusiaren ondoren, 12 urteko mutiko batek zaku batetik ateratzen zituen agintarien izenak. Haiek urte betez aginduko zuten.

Kontzejua 2 foru alkatek, 4 zinegotzik, eskribau batek eta preboste batek osatzen zuten. Zenbait zereginetarako ere bazituzten beste ofizialak.

Prokuradoreak itzal handiko gizonak izaten ziren, gehienetan. Beste herri edo erakundeen aurrean kontzejuaren eta hango biztanleen ordezkari izaten ziren.

Ofizialen kopurua, hautatzeko modua edo jasotzen zuten ordain eskasa baina esanguratsuagoa zen, ordea, haien etorkia eta erabakiak hartzeko zuten gaitasuna.

Kontzejuaren erabakiak betebeharrekoak ziren haien eskumenean zeuden guztientzat: Villanuevan eta Oiartzungo bailaran bizi ziren biztanle guztientzat, kasu honetan. Kontzeju txiki horietako karguak famili gutxi batzuen eskuetan zeuden: Ugarte, Ganboa, Isasti, Alzibia eta Gabiria- eta hauek txandaka bete ohi zituzten kargu horiek.

Garai hartan ez zuten udaletxerik. Udal batzarrak elizako koroan eta etxe partikularretan egiten zituzten.

Udala osatzeko moduari dagokionez, udalaren osaketak beste aldaera sakona izan zuen diktadura garaian, Gerra Zibilaren ondoren. Herri bozketaren bidez aukeratutako udalak berehala desegin eta, haien orde, probintziako Gobernadore Zibilak zuzenki beste udalbatza batzuk inposatu baitzituen. 1923ko urrian, Guardia Zibilen komandantea buru zen batzarrean, behin-behineko udalbatza izendatu zuten, adibidez.

Udalak hainbat eginkizun ditu. Haien inguruan aritzea proposatzen dizuegu.

Nortzuk osatzen duten udala, nola hautatzen diren, zer egiten duten eta abar.

Gainera, hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie herritarrei.

Herritarrek zerbitzu horiek ordaintzen ditugu zergen bidez.

Jarduera honekin, ikasleei udalaren eta udaletxearen gaineko oinarrizko ezagutza eskaini nahi zaio.

JARDUERA1: Ba al dakizu nola dagoen eratua udala? Osatu eskema hitz egokiak aukeratuz.

Koadernoko 15. orrialdea.

JARDUERA2: Gelako taldea da, seguruenik, antolatu behar dugun gertueneko taldea. Hausnartu dezakegu ikasleekin gelaren antolaketaren inguruan: arduradunak edo gelako ordezkariak baldin badituzue, nola aukeratzeko dituzuen, nola aukera daitezkeen, zein beste antolaketa moduak erabil daitezkeen eta abar.

Ezagutu dugu udala nola osatzen den. Zer iruditzen zaizu udala osatzeko modu hori? Bururatzen al zaizu beste moduren bat zuen iritziz herritarrek hobe ordezkatzeko gintuzkeena?

Eta gela? Nork agintzen du gelan? Nola aukeratu duzue? Gustura al zaude antolaketa horrekin? Proposatuko al zenuke beste modu bat gela antolatzeko eta arduradunak, koordinatzaileak edo ordezkariak aukeratzeko modua?

Aukera polita da guztiak ukitzen gaituen gai honen gainean jarduteko.

22. JUAN IGNACIO GAMONGOA

1733ko uztailaren 29an jaio nintzen. Nire izen osoa, Juan Ignacio Gamongoa eta Etxeberria da, etxe oneko semea eta herriko familia ezaguneko naiz.

Betidanik historia zalea izan naiz, eta oso gogokoa nuen idaztea. Herriko historia jaso nahi izan nuen, Oiartzun eta Donostiarekin izan genituen liskarrak, zuek noizbait ezagut zenitzaten. Etxeko liburutegian genituen idatzi zaharrak aztertu nituen horretarako.

Noticias historicas de Renteria liburua idatzi nuen, baina ni hil ondoren argitaratu zuten, 1931n, udalak ez zuelako horretarako dirurik. Liburu

horretan gure herriaren eskubideak sutuki defendatu nituen.

Apaiza izan nintzen, parrokian. Idazteaz gain, abenturetarako astia ere izan nuen. Hala, Konbentzioen gerra piztu zenean, 1793an, frantsesak herrian sartu aurretik, Udal artxiboko paper zaharrak eta parroko bitxiak hartu eta Santanderreko mendietara ihes egin nuen. Han ezkutatu nituen eta horri esker, salbatu ahal izan ziren.

Oraindik urte batzuk gehiago bizitu nintzen, 1814ko otsailaren 4 arte, hain zuzen.

JARDUERA: Juan Ignacio Gamongoak lan handia egin zuen herriaren alde. Beste Gamon batzuk ere ezagunak izan ziren. Haien guztien oroimenez hainbat leku izendatu dituzte. Ea zenbat ezagutzen dituzun!

Koadernoko 16. orrialdea

23. EIDER RODRIGUEZ MARTIN

1977ko maiatzaren 18an jaio zen. Euskal idazlea da.

Orereta ikastolan egin zituen ikasketak UBI bitarte. Ondoren, 1995ean, Historia eta Harreman Publikoetako ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean.

Kazetaritza lanetan aritu da hainbat artikulu argitaratuz, besteak beste agerkari hauetan: The balde, Oarsoaldeko Hitza, Hitzak eta ideiak eta Nabarra aldizkarian.

Gaur egun ogibidez editorea da.

Bere bibliografia:

Irakurri (“Irakurketaren biografia”), saiakera bilduma, Meettok, 2008.

Haragia, narrazio bilduma, Susa, 2007.

Y poco después ahora, narrazio bilduma, Ttarttalo, 2007.

Cuatro cicatrices, narrazio bilduma, Atenea, 2006.

Irene Nemirovsky: Dantzaldia, Txalaparta, 2006, nobela euskaratu zuen.

Ametsen baratza, Elea, 2005, “Arima gazteak” ipuina.



%98, Komunikazio Biziagoak, 2005.
Eta handik gutxira gaur, narrazio bilduma, Susa, 2004.
Marihuanazko bufandak, Txalaparta, 2002, “Déjà vu” ipuina.

SARIAK

Errenteria Hiria ipuin lehiaketa, Ereintza, 2001, “Bellevue” eta “Ilusioaren ilusioaz”.

www.errenteria.net/es/ficheros/40_6494es.pdf

Katu jendea, ipuin liburuagatik, XI: Igartza saria.

Informazio gehiago eta Eiderri eginiko hainbat elkarrizketa dituzu lotura hauetan:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00660.htm>

elkarrizketa bat: http://www.euskonews.com/0440zbk/elkar_eu.html

24. VICENTE COBREROS URANGA

Kasualitatez Tolosan jaio zen 1898ko maiatzaren 31n. Haren gurasoek Botika Zaharra sortu zuten gure herrian.

Madrilera joan zen eta arte ikasketak Isidoro Uribesalgo y Gruceta eskultorearekin hasi zituen. Geroago, San Fernandoko Arte ederretako Goi mailako Eskolan sartu zen, eta han irakasle izan zituen, besteak beste, Sorolla, Cecilio Plá, Romero de Torres eta Moreno Carbonero.

Bere lanek laster izan zuten arrakasta nazioarteko erakusketetan eta Madrileko kritikak gogotik goraipatu zuen.

Ondo menderatzen zuen marrazkia eta kolorearen erabilera, eta trebetasunez landu zituen akuarela eta erakusketa ugaritan aurkeztu zituen akuaforte askoren egile izan zen. Era berean, grabatua eta luma ere ongi menderatu zituen. Erretratugile trebea izateaz gain, irakasle ere izan zen eta "con verdadera vocación de apóstol"ekin ekin zion irakaskuntzari Donostiako Merkataritza Eskolan, Peñafiorida institutuan, Magisteritza Eskolan eta Arte eta Ofizioen Eskolan.

Lan horiek artearen kritikarekin tartekatu zituen Unidad egunkarian eta Radio San Sebastian irratan.



Gipuzkoako Elkarte Artistikoak argitaratzen zuen "Gaviota" aldizkariko erredaktorea ere izan zen, eta 1950ean San Sebastián: Paseando por la ciudad liburua argitaratu zuen, Agustín Ansa sendagile eta akuarelagileak liburua ilustratu zuelarik.

1976ko irailean hil zen eta galera handia izan zen gure herriko arte eta literatura giroan murgildurik zeuden guztientzat. Haren arte kritikak eta idazlanak J. Arramale ezizenez sinatzen zituen.

Vicente Cobreros pintorea María Isabel (Mami) Moralesekin ezkondu zen. Bi seme izan zituen, Carlos eta José Luis.

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/31376>

<http://www.erreterria.org/euskera/visitantes/arte/arte14.html>

25. MINGAIN-TXAR

Mingain-txar, aldarte txarreko eta mihi zuhurreko agure bakarti bat zen. XV. mendearan amaieran Bizarain mendian bizi omen zen, Artxipi izeneko harrobian, txabola batean. Gordinki aurkezten omen zituen bere iritziak, eta jendeari eta jendarteari egiten zizkion kritika zorrotzengatik Mingain-txar esaten zioten.

Esaten dutenez, harek bai esan omen zezakeen: "batzuk baietz zioten, besteak ezetz; eta nik, denei aurka egin nien.

Garai hartako herria ez omen zen harresi artean kabitzen, jada. Herria zabaldu beharra zegoen eta bi iritzi zeuden herritarren artean: batzuk herria Madalenako errebal aldera zabaldu behar zela zioten. Besteek, berriz, ezetz, komenigarriena herria orduko hiltegi, gaurko F. Landa plaza, aldera zabaltzea zela.

Hasierako eztabaida eta iritzi hura denboraz liskar bihurtu zen. Nork bereari eutsi zion geroz eta indar handiagoz. Azkenean, katramilari konponbidea eman ezinik, erregeei, Gaztelakoei, bi epaile jartzea eskatu behar izan zieten.

Epaileak zer esan ez zekitela zeuden. Ez zen erraza epaitza ematea: alde batekoen zein bestekeoen argudioak pisuzkoak ziren.

Zabalgunea bihurtu zen herritarren elkarrizketagai bakarra. Baina zein iritzi

ote zuen Mingain-txarrek?

Noski, inor ez zen ausartzen hari galdetzen, harik eta egun batean lagun bat aurreratu zen arte: «Epaileen ehizean ibili beharrean, hobe zenukete herria bi aldeetara zabaltzea», erantzun zuen.

Isiltasuna nagusitu omen zen, madarikatzaile zaharraren ikuspegi zabalak hausnartarazi zien. Eta, hala, pixkanaka, eztabaidaren sua itzaliz joan zen. Egund gutxiren buruan bizilagunek, bat eginik, herria bi aldeetara zabaltzeko eskatzen ari ziren.

26. MUSIKA

Oraingoan herrian ditugun hainbat kultura adierazpena hurbilketa egiteko asmoa dugu. Kontuan izan herria oso aberatsa dela eta izan dela kultura mailan eta horregatik, hemen zertzelada batzuk besterik ezin ditugu eskaini. Bestalde, kultura esparru anitz landu dituzte herriko kultur eragileek. Kulturako hainbat diziplinek gure herrian izan duten adierazpenaren hurbilpena eskaini nahiko genuke hurrengo jardueretan.

Musika arloari dagokionez, aspaldikoak dira agiritan jaso diren erreferentziak. Hala, 1535eko udal batzar batean kalean oihukatzea debekatzeko erabakia hartu zen. “Oihu” horiek, seguruenik, kantuan zebilen jendearen kantuak izango ziren.

Urte batzuk beranduago, 1547an eta 1548an, ezagutzen diren lehen danbolin eta organo joleen berri dugu. Izan ere, 1547an Sanjoanetan danbolina jo zuena Joanes Arbidekoa izan zen. Hurrengo urtean, berriz, Juan Martin Yerobikoa apaizak sinatu zuen hitzarmena organoa jotzeko.

XVII. mendean, udalak erabaki zuen organo joleak organoa jotzeaz gain herriko ikasleei kantua ere irakastea.

XIX. mendean, berriz, 1877an hain zuzen, betebeharrak hauek ezarri zituzten organo joleari: konposatzea, 4 tiplei musika erakustea, organoa afinatzea eta behar izanez gero, baita banda zuzentzea ere.

Parrokiko organoa izan zen mende luzeetan herriko musika tresna garrantzitsua. Dirudienez armada frantsesak lapurtu zuen 1662an parrokiak izan zuen lehen organoa.



Ondoren ekarri zuten organoak luzaroan iraun zuen, agirietan agertzen baita 1721ean konpondu behar izan zutela. Dirua Mexikon bizi zen herritar batek eman zuen; konpondu ordez, baina, berria ekarri zuten.

Gaur egungoa, 1893koa da.

Eliza eta elizkizunen inguruan agertzen dira, batik bat, koroak, musikagileak eta obrak. XX. mendearen inguruan bizilagunek elizako koruan gero eta sarriago parte hartzen dute. Era berean, ugarituz doaz musikagile ospetsuen obrak eta konposizio berriak.

Bestalde, Madalen jaiak ere aukera ona ziren musikarako.

Maiatzean, MUSIKASTE, musikari eskainitakoa astea ospatzen da. Sona handia du Euskal Herri osoan. Gainera, euskal musikarien lanak gordetzeko eta zabaltzeko lana egiten duen artxibategia ere badugu: ERESBIL.

27. KANTATZEN DUEN HERRIA

Apaiz organo joleak funtsekoak izan ziren abesbatzen fenomeno gureganatzean. Haiexek hezi zituzten haur kantariak, tipleak, ondoren kantari helduak bilakatu zirelarik: tenoreak, baritonoak.

1898an sortu zen Antonio Olaranen Errenteriar orfeoia. Ondoren, Errenteriako Arte-Musikarako Elkarte, Tipleen edo Juan Bautista Olaizolaren eskolania, Oarso otxotea, Jubaola otxotea, Goxo boskotea, Errenteriako orfeoia, Karnaba zortzikotea, emakumez osatutako Alai zortzikotea, Andra Mari koroa eta Landarbaso korua sortu dira, besteen artean.

BANDA

1864an “Sociedad filarmónica” sortu zen.

Urte askotan dantzarako musika jo zuen, herritarren gozamenerako. 70eko hamarkadan, ordea, musika taldeek hartu zuten bere tokia eta bandak, dantzarako musika alde batera utzi eta akademiara bueltatu zen, bere kontzertuak prestatzen jarraitzera.



ERRETERIA MUSIKALA, UDAL KONTSERBATORIOA

Herriko musika irakaskuntzan mailarik gorena adierazten du, bai irakasten diren gaiengatik eta baita ere bertara joaten den ikasle kopuruarengatik. Donostiako kontserbatorioaren antolaketa une horietan ez zen egokia eta horrek ahalbideratu zuen, beste hainbat aldagairekin batera kontserbatorioaren sorrera.

1986an Kontserbatorioko oinarrizko mailako ikasketei balio ofiziala eman zitzaion, eta Udaleko Musika Akademia izena eman zitzaion. Garai hartan, 18 ikasketa gai desberdin eskaintzen zituen.

Azkenik, 1991eko ekainean Kontserbatorioko Erdi Maila onartu zitzaion, Irun, Pasaia eta Arrasateko kontserbatorioekin batera.

Hasiera-hasieratik kontuan hartu zen ikaslearen heziketaren alderdi garrantzitsua izango zela jende aurrean jotzeko prestakuntza. Ikusten denez, musika irakaskuntzak beti herriari eskaini nahi izan dizkio bere lanaren emaitzak.

Musikagile ugari izan dira herrian: Ignacio Tabuyo, Nicanor Albisu, Julian Lavilla, Valentin Manso, Felix Lavilla, Jose Luis Ansorena, David Telletxea, Hipolito Zubillaga, Patxi Joseba Larrañaga eta Eunáte Prieto, besteen artean.

Interpreteak ere ugariak izan dira: Ignacio Tabuyo, Matias Etxeberria, Angel Etxeberria, Maria Josefa Valverde, Ignacio Ubiria, Juan Etxebeste, Felix Lavilla, Dora Alkiza, Pedro eta Patxi Corostola anaiak, Maite Arruabarrena, Lourdes Lekuona eta Joxan Matxain, batzuk aipatzekotan.

Musika taldeei dagokionez, 1979an sortu zen Odio taldea. Gero sortu ziren, Alarma, Basura, Infarto, Jaio (gero TNT izango zena).

Berbena taldeak, berriz, Lainoa, Txangot, Para Lelos, Aullidos, Olvidados, Mariposas Rapaces (Heavy), Ana y los Lobos (Rock and Roll), Xabiron (pop).

Sortutako beste batzuk izan ziren: Bihotz Erre, Ostikada, Nonbait, Jaleo (Sube aqui), Comando Souto, Hondakin, Mortuoti.

Herriko kantautore ezagunenak, berriz, Mikel Marquez eta Txuma Murugarren dira.

Bi diska konpainia izan ditugu herrian: Basati Diskak eta ES3 records.

Gaur egun, herriko musika talde gehienak EMTEn (Errenteriako Musika Taldeen Elkarte) biltzen dira, eta Zamalbideko eskola zaharretan dute egoitza.

JARDUERA1: Ezagutzen al duzue herriko musika talde, musikagile edo musikaririk?

JARDUERA2: Zuetako batzuk koruren bateko kantariak zarete, akaso. Ba al dakizu zein koru dauden herrian?

JARDUERA3: Ezagutzen al duzu gure herriaz hitz egiten duen kanturik?

Koadernoko 17. orrialdea.

28. BERTSOLARITZA

Orain arte kantuan aritu ziren hainbat talde eta herritar ezagutu ditugu. Baziren, baina, kantuan aritzen ziren beste herritar batzuk ere: bertsolariak. Garai batean sagardotegi asko zeuden gure herrian eta ohikoa zen haietan eta bestelako ostatu eta tabernetan jendeak kantatzea.

Bertsotan aritzen zirenak asko izan ziren. Haietako zenbaitzuk ospea lortu zuten, gainera: Patxi Bakallo, Xenpelar, Panderi, Frailia, Txirrita, Txintxua, Saiburua, Telleri-txiki, Taberna, Salaberria, Zapiaindarrak, Urrutia, Zabaleta anaiak eta Xabier Olaskoaga, eta gazteagoak diren Jon Ansa, Aitor Albistur, Arkaitz Oiartzabal eta Josu Oiartzabal, besteak beste.

Emakumeak ere aritzen ziren bertsotan, Joxepa Antoni Aranberri Petriarena Xenpelarren arreba, oso bertsolari iaioa izan zen eta sarritan aritzen zen anaiarekin bertsotan.

Garai hartan ez zuten irrati, telebista edo Internetik bertsoak zabaltzeko. Bertso paperak zituzten, ordea.

Hori guztia gogoratzeko Xenpelar Bertso Eskolak bi bertso-paper lehiaketa antolatzen ditu urtero:

Ibon Zabala Bertso-paper Lehiaketa: 16 urte arteko gaztetxoentzat.

Zapiain Anaiak Bertso-paper Lehiaketa: 17 urtetik gorakoentzat.

ZUZENKETA: Koadernoan agertzen den testuan, bertso paperen lehiaketak Xenpelar Bertso Paper lehiaketa izena duela agertzen da. Zuzendu beharreko akatsaren ondorioa da; izan ere, aurreko paragrafoan agertzen den moduan, lehiaketak bi dira: Ibon Zabala Bertso-paper lehiaketa eta Zapiain Anaiak Bertso-paper Lehiaketa.

San Tomas egunaren inguruan antolatzen den bertso-jaialdian egiten da sari banaketa eta irabazleek beren bertsoak kantatzen dituzte..

Herrian, gainera, bertso eskola ere bada, Xenpelar Bertso Eskola. Eskola hori, 1986an sortu zen bertsozalez eta euskaltzalez osatutako herritar talde baten ekimenez. Helburu nagusiak, bertsozaletasuna sustatzea eta bertsolariak sortzea zen. Ordutik, urtero urtero bertsolaritza ezagutu eta bertsoak egiten ikasteko aukera eskaintzen die haurrei eta helduei astean behin. Gainera, hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtean zehar: Urte Zaharreko koplak, Santa Ageda bezperako koplak, bertso saioak, hitzaldiak eta abar.

Liburuxkako orrialde horren oinean hainbat argazki dituzu. Txistulariak, Udal Txistulari taldekoak dira, Jose Mendizabal, Mariano Goikoetxea eta Jose Gabarain, hain zuzen. Beste argazkian, Kashbad taldeko bateria jolea, Andra Mari abesbatza eta 1926ko Udal Musika Bandarenak dira.

JARDUERA: Entzun azalpenak eta ipini bakoitzari bere ezaugarriak.

Koadernoko 17. orrialdea.

29. ANTZERKIA

Gerraurrean herri-antzerkia ikaragarri zabaldu zen herrian. Telebistarik eta zinemarik ezean, herri-antzerkia, prentsarekin batera, maitasunaren, pentsamendu politikoaren edo jendartearen kezken adierazpide eta komunikabide egokiena zen.

Beraz, oso ohikoa zen antzerkia ikustea. Askotan, Zumardi Txikian egiten ziren funtzioak. Baita Reina Victoria eta On-Bide aretoetan ere emanaldi ugari egiten ziren.

Alhondiga zaharrean, Fernandez de Landako lorategitxoa dagoen lekuan, inauguratu zuten lehen aretoa 1901ean. Antzerkia ikusi eta musika entzuteko

aretoa zen. Errenteriako Orfeoiko bazkideek musika bezain atsegina zuten, atseginagoa agian, antzerki soila eta bi generoak txandakatu behar izan zituzten haien nahia betetzeko.

Garai hartako antzerki obretan, emakumezkoen paperak gizonen antzezten zituzten, orduan ez baitzegoen ongi ikusia emakumeak eszenatokira igotzea.

Gaur egun Xenpelar Arte Plastikoetako Udal Lantegian bada Haurrentzako Antzerki Tailerra, eta herrian badira antzerki talde gutxi batzuk.

JARDUERA1: Ikusi al duzu antzerki lanik inoiz? Non?

JARDUERA2: Bildu taldeka eta prestatu antzerki lanen bat lagunei eskaintzeko.

Koadernoko 18. orrialdea.

30. DANTZA

1573an, jada, 15 laguneko dantzari taldeak herriko eta elizako festetan parte hartzen zuten.

Urte batzuk geroagoko agirietan ikus dezakegu, 1599an hain zuzen Korpus egunean elizari egiten zitzaizkion biretan dantzariak partaide izaten zirela eta eliza kutsuko dantzak egiten zituztela.

Gehienbat Madalen jaietan, garaian ezagunak ziren ijito dantza, janzkera dantza eta alero dantza dantzatzen zituzten herritarren bozkarioak.

1914an Irineo Rekalde Gipuzkoako dantzak erakusten hasten da gazte talde bati, orduan makila dantza esaten zitzaiona. “Errenteriako brokel dantzarien konpartsa” agertu zen orduan.

Gerra garaian, euskal kulturako gainerako alorretan gertatu zen antzera, dantzak ere geldiene garrantzitsua ezagutu zuen. Geldiune hori, ordea, jendaurrekoa izan zen soilik. Izan ere, Irineo Rekaldek, urtero urtero amabirjinari ohorezko aureskua dantzatzen zion bere egunean. Irineo sakristaua zen, eta, abuztuaren 15ean, elizan inor geratzen ez zenean, leiho guztiak itxi, argiak piztu, eta bere bakardadean Amabirjinari dantza egiten zion. Eskaintza hori bekatu gisa biziko zuen Irineok, hiltzear zela apaizari

konfesatu zion arte inork ez baitzuen jakin.

Bi dantza talde garrantzitsu izan ditugu herrian: Ereintza Dantza Taldea eta Iraultza Dantza Taldea.

Gaur egun Udal Kontserbatorioko Udal Dantza Eskolan haur eta helduek dantza ikas dezakete: haurrek, euskal dantza, balleta eta klakea, eta helduek, berriz, klakea eta gaur egungo dantza.

Hauz gain, herrian badaude beste dantza mota batzuek egiten dituzten taldeak eta akademiak.

JARDUERA1: Hala ere, badaude beste dantza motak lantzen dituzten taldeak. Ezagutzen al dituzu?

Koadernoko 18. orrialdea.

Oso dantza zaleak izan gara. XX. mende ia amaiera arte, igande arratsaldeetan dantzaldia izaten zen Zumardian eta azken aldian Iztieta Diputazio plazan. Mutilek dantza eskatzen zieten neskei eta handik sortu ziren bikote ugari urte askotan. Apaizaren kexuak izan ziren sarri dantzaldi horietan eman zitezkeen jarrera desegokiei buruz, eta behin baino gehiagotan ahalegindu zen dantza debekatzeko, izen onaren izenean.

Marraski horretan, ongi ikus liteke igande arratsalde batean Zumardiak izaten zuen itxura. Hasieran Udal Musika Banda zen kioskoan musika jotzen zuena. Beranduago, garaiei egokituz, berberna taldeak ziren jendea dantzan jartzen zutenak.

Gaur egun, batik bat, jaietako gauetan izaten dira dantzaldiak. Garaietara egokituz joan da ohitura hori eta Zumardiaz gain herriko beste plazetan ere izaten da, eta DJak aritzen dira nagusiki.

31. ZEIN KULTURA JARDUERATAN PARTE HARTZEN OTE DUGU?

Gure ikasle gehienek eskolaz kanpoko ekintzak egiten dituzte. Ekintza horietatik asko, seguruenik, kulturalak izango dira, eta aipatu ditugun talderen batekin egingo dituzte. Interesgarria litzateke horren azterketa eta

hausnarketa egitea. Horretarako, datozen jardueretan hainbat galdera proposatuko dizkiegu ikasleei. Ondoren taula bat beteko dugu. Hala ere, nahi izanez gero, sakontzen jarrai dezakegu. Adibidez, egiten dituzten jarduerak herrian egiten ote dituzte edo beste herriren batera joaten diren, herrian dagoen eskaintza nahikoa ote den, zer den gehienek egite duten jarduera eta abar.

JARDUERA1: Eta zuk, egiten al duzu kultura jardueraren bat. Zein?

JARDUERA2: Zure etxeok kultur talderen bateko partaide al zarete?

JARDUERA3: Joan al zara inoiz ikuskizunen batera edo kultura emankizunen bat ikusi ala entzun al duzu?

JARDUERA4: Zein kultur jardueratan gustatuko litzaizuke parte hartzea?

JARDUERA5: Eta zure gelako lagunek zer egiten dute? Galdetu eta bete taula.

JARDUERA6: Zein da gehienok egiten duzuen jarduera?

JARDUERA7: Zer da gutxienok egiten duzuen?

JARDUERA8: Lagunen batek egiten al du jardueraren bat herritik kanpo? Zein eta non.

Koadernoko 19. orrialdea.

32. INAUTERIAK DIRA

Festa eta tradizio anitz dugu herrian. Haien artean inauterietakoa aipatu nahi dugu dituen ezaugarriengatik eta izan duen historiagatik.

Artxibategian dauden agirietan herrian ospatutako inauteriei buruzko lehen data 1602koa da, Euskal Herriko zaharrena. Erro sakonak ditu, beraz, inaute jaiak gure herrian.

Gerra Zibilaren garaian, 1936an, inauteri festak debekatu egin zituen Espainiako gobernuak. Hainbat herritan, debekuari izkin egiteko, inauteriak ospatzen jarraitu zuten “Udaberri jaiak” izenarekin. Gipuzkoako gainerako



herrietan, gurean barne, ohitura zaharrak utzi zituzten, hargatik ahaztu ez bazituzten ere.

Debekua altxa zutenean, herri gehienek inauteriak antolatzeari ekin zioten.

Gure herrian inauteri urbanoa berreskuratu zen, jendea mozorrotuta eta konpartsa desfileekin. Hori, 1980an gertatu zen.

Hala ere, ahalegin berezi bat egin nahi izan zen herriko inaute festa berreskuratzeko. Horretarako mahaiak jarri ziren kaleetan, inauteriak debekatu aurretik egiten ziren jai haietaz jendeak zituen oroimenak biltzeko.

Lanak eman zuen bere uzta. Horrela, Azeri Dantza oilasko jokoekin, Sardinaren ehorzketa eta diana berreskuratu ziren.

Bilketa lan hartan izan ziren pasarte bitxiak. Adibidez, Periko Lizardi Udal Txistulari lehenak gerra garaitik diru-zorroan ardura handiz gorderik zuen inauterietako dianaren partitura eskaini zuen, eta horri esker ezagutu eta berreskuratu ahal izan zen gaur egun inauterietan entzuten dugun diana.

AZERI DANTZA: Gipuzkoako beste hainbat herritan ere ezaguna da tradizio hau. Hala ere, gure herrikoak baditu berezkoak diren berezitasunak.

Berreskuratzerakoan hainbat elementu eguneratu ziren, adibidez: janzkera eta nesken parte hartzea.

Gaur egungo Azeri Dantzan neskak mutilez eta mutilak neskez jantzita ateratzen dira. Hori, berrikuntza izan zen. Ostegun gizen egunean dantzatzen da.

Garaiko Azeri Dantza baserriz baserri ibiltzen zen eta koplak kantatzen zituzten. Dantzariak makila batzuk eramaten zituzten eskuetan eta handik zintzilikatzen zituzten baserrietan ematen zizkieten odolki, txorizo eta abarrak.

Ondoren, plazan, Azeri Dantza dantzatzen zuten. Dantzak sei zati ditu: Aitarena, Zortzikoa edo Leku Aldatzekoa, Orratzekoa, Txingo edo Iletia, Perra jartzea eta Borroka edo Dorrea.

DIANA: Goizeko seietan jotzen dute txistulariek eta bandako metal taldeak. Dianako doinuaren partitura 40 urtez gorderik izan zen diru-zorroan Udal Bandako lehen txistularia zen Periko Lizardik.

Beste doinu bat ere berreskuratu zen “Boga-Bogaren” zatiak dituen.

SARDINAREN EHORZKETA: Inauterietako azken egunean, asteartean, jaiei amaiera emateko Sardinaren Ehorzketa egiten da. Aurrez, sardina bat prestatzen da eta egun horretan apaizak, meza-laguntzaileak, alkateak eta abarrek osatutako segizioak Zumardiraino laguntzen dute. Han, agur ekitaldi txiki bat egiten zaio, bertsoak abestu eta azkenik ibaira botatzen dute. Segizioan Amulletako danbor kofradiak eta beltzez jantzita eta kandelak eskuan dituzten herritar ugarik parte hartzen dute.

Zumardiko agurreko ekitaldian hainbat bertso kantatzen dituzte. Bertso batzuk urtero errepikatzen dira. Tartean, beste hainbat, urte horretan izandako gertaera edo albiste aipagarrienei jarriak dira.

Hona hemen urteetan errepikatzen diren bertsoak:

SARDINAREN EHORZKETA

Inauteriak dira inauteri
bada hemen nahiko komeri
gure jaiak pasiak dira ta
zoaz sardina igeri.

Sardina ederra zinaden jaio
jendeak halaxe diyo
Viva la Madre que te pario
ta hurrengorarte ariyo.

Agur ariyo gure sardina
hil zaitu gaur triste-minak
bestela ere hilko zintuzke
ibaiaren ur zikinak.

Negarrez hauxe dijoa azken
ta esango det latinez
requiesce sardina in pacem
semper seculorum AMEN.

Jarraian honoko testua eskaintzen dizuegu ikasleei irakurtzeko. Ondoren, entzundakotik gogoratzen dituzten ezaugarriak dagokien atalean itsasteko eskatuko diegu.

“Oso antzinakoak dira inauteri jaietako aipamenak. Izan ere. 1602an,



dagoeneko, udalak Mattin Cipresekoari hamabi dukat ordaindu baitzizkion danbolina jotzeagatik hainbat festetan, tartean inauterietakoetan.

Gerra Zibilaren ondoren, Francok agindu zuen 40 urtetan, ordea, inaute jaiak debekaturik egon ziren.

Franco hil zenean, herriak antzinako ohitura ahaztu ez zuenez, memoria historiko hura berreskuratzeko lanetan hasi zen.

Horretarako, herriko kale kantoi guztietan mahaiak ipini zituzten jendeak zituen oroimenak biltzeko.

Ondoren, dantzari, musikari eta herriko beste zenbait jenderekin bilera egin zen. Bitxikeria ederra gertatu zen.

Periko Lizardi Udal Txistulari lehenak bere diru-zorroan zekarren egun hartako ezustekoa: Inauterietako Txistularien Dianak. Partitura horiek herrikoak izateaz gain, herrirako bereziki konposatuak izan ziren.

Antza, garai batean txistulari banden artean bizi zuten demari eutsi nahian, eta beste inongo herrian jo ez zezaten, partitura haiek bere diru-zorroan ondo gordeak eraman zituen Perikok.

Kopiak egiten utzi ez bazuen ere, inauteriak berreskuratuz gero dianak jotzeko konpromisoa hartu zuen, ohitura zaharrari eutsiz, txistuak eta metalak konbinatuz.

Dantzari dagokionez, ordea, kontuak korapilotsuagoak izan ziren. Hari buruz datu solte batzuk besterik ez zeuden: asto baten atzetik joaten zen dantzari koadrila, astoak buru ganean oilarra zeraman, eskean jasotako arrautza, txorizo eta abar makilatik zintzilik eramaten zituzten, ondoren plazan dantzatzen zen, etxe bakoitzaren aurrean koplak kantatzen ziren.

Dantza eta doinuak, baina, ahaztuak ziren. Beraz, Adunan dantzatzen den Azeri Dantzan oinarritzea erabaki zen. Horri, ordea, bi berrikuntza gehitu zitzaizkion: emakumeei parte hartzeko aukera ematea eta janzkera egokitzea. Horregatik, gure herrian gizonak emakumez jantzita joaten dira eta emakumeak gizonez.

Iztueta dantza maisu handiaren liburutik hartuta, Astigarragan egiten zuten Oilasko jokoa ikasi eta herrian egiten hasi ziren. Hiru urtez besterik ez zuten egin, ordea, jendeak ez baitzuen begi onez ikusi oilaskoei ematen zitzaien tratua.



Azkenik, oilasko jokoen ildotik etorri zen inaute jaiari amaiera ematen dion Sardinaren Ehorzketa. Bizkaiko Portugaleteko herritik hartutako irizpideak jarraituz osatu zen.

Lehen urtetan aldaketak jasan zituen, sardina batzuetan erre eta besteetan uretara bota izan zirelako. Egun, Oiartzun ibaira botatzea finkaturik dago.

Urteen joanean elementuak gehitzen joan zaizkio: zumardian egiten zaion azken agurra, bertan kantatzen diren bertsoak eta Amulletako Kofradiaren Danborrak, esate baterako.

JARDUERA: Entzun azalpenak eta ipini bakoitzari bere ezaugarriak.

Koadernoko 20. orrialdea.

33. SAN JOAN GAUEKO SUA

Kristautasuna heldu aurreko jaia da. Urteko gau motzenean, San Joan bezperan, ekainaren 23an, gure arbasoek udako solstizioa ospatzen zuten. Gau horretan, sua omentzen zuten, eta goizaldera arte irauten zuen ospakizunak. Orduan, egunsentiko ihintzetan hainbat errito egiten zituzten.

Gure herrian ere, oso antzinatik, gau horretan dantzariak herriko plazan ipinitako lizar luzearen inguruan dantza egiten dute, gau horretako dantza: San Joan bezperako Soka Dantza. Dantza amaitzerako, belar pilari su eman eta dantzariak salto egiten dute su horren gainetik.

Duela urte batzuetatik, dantzaren aurretik, beltzez jantzitako emakume misterioitsu batzuk urari eta San Joan bezperako gauari kantatzen diote:

EGU BAI EGUN HONEK SAN JUAN DIRURI
EZ DA SAN JUAN BAINAN HALA ALUNBRA BEDI.

GOAZEN SAN JUANERA GAUR ARRATSIAN
ETORRIKO GERALA BIHAR GOIZIAN.

GOAZEN SAN JUANERA BERDURATARA
BERDURATARA ETA HAN EGITERA.

JUAN NINTZAN FRAINTZIARA ETORRI MAIATZIAN
ZALDITXO URDINIAN ASTUAREN GAINIAN.

SAN JUAN ITURRIAREN ONDOTIK
ZAZPI ITURRI URRE KAINUETATIK
ZORTZIGARRENA METAL ZURIETATIK
ZORTZIGARRENA METAL ZURIETATIK.

SAN JUANGO ITURRIEN DAGO URA BERDE
AMURAITXO FRESKUAK HANTXEN DIRADE
LEMIZKO ESKUAK ETA GERO MUSUAK
SAN JUANGO ITURRIAREN FRESKUA.

JESUKRISTOREN LENGUSU BA DA
AITA SAN JUAN BAUTISTA
AINGERUAK DANTZAN DABILTZA.

DABILTZA BAIA DABILTZA
SAN JUANEN POZIAN DABILTZA.

ANDRA MUTUR MAKETZA
AINGERUAK DANTZAN DABILTZA.

DABILTZA BAIA DABILTZA
SAN JUANEN POZIAN DABILTZA.

SAN JUAN GARAGARRILLIAN DENBORA GALANTIAN
MAIZIK ETA GARIK EZ DAGONIAN ETXIAN
ORAIN ARTE BEHAR HEMENDIK AURRERA GARI!

Bi saio horiek amaitzean, hasten da gau magikoa. Nonahi suak ikus daitezke, auzo eta baserrietan.

Zenbait auzotan era berezian ospatzen dute gaua. Adibidez, Gaztañon, su handi bat egiten dute eta duela hainbat urtetatik mitologiako pertsonaiak eta sorginak agertzen dira su-pilaren ondora ikuskizuna eskaintzera.

JARDUERA1: Nola ospatzen duzue San Joan gaua zuen auzoan?

Koadernoko 21. orrialdea.

34. TXUN PA TXUN PA TXUNPA!

Uztailaren 21ean hasten dira Madalen jaiak, uztailaren 25, Santio eguna arte.

Jaiei hasiera txupinazoak ematen die. Arratsaldeko zazpitan, udaletxeko balkoitik urte horretan omenduak izateko aukeratu dituzten lagunek jaurtitzen dute. Ohitura da koadrilak txupinazora joatea eta horregatik herriko plaza jendez lepo egoten da.

Txupinazoaren eztandaekin, parrokiako eskaileretan dagoen Udal Bandak Centenarioa jotzen du eta jendea dantzan eta abesten hasten da. Aipatzekoa da doinu horrek letrarik ez duen arren, jende guztiak txunpa txunpa gisa kantatzen duela, zahar eta gazteak. Jarraian, Udal Banda Maialen eta Xanti erraldoiekin eta buruhandiekin Madalenako ermitaraino joaten dira.

Ekitaldi jendetsu eta ospetsu asko dituzte Madalen jaiek. Aipagarrienak seguruenik, zaharrenak direlako, zezenak, dianak eta dantza laguntzak dira.

XXI. mendearen lehen hamarkada arte goizeko zazpitan entzierroa egiten zen Alde Zaharreko kaleetan barrena. Ondoren, sokamuturra eta festarako ipintzen den zezen plazan zezenak.

Orain, ordea, ez da entzierrorik egiten.

Aurretik, goizeko seietan diana izaten da herriko kaleetan zehar. Azken urteetan ohitura bilakatu da bertara joan eta txarangaren atzetik dantzan eta kantari ibilbidea gitea. Horregatik, ekitaldi jendetsuenetako bat bilakatu da.

Maialen eta Xanti haien lagun Demonioa, Indioa, Beltza, Xaku eta Lepo buruhandiekin irteten dira kalejiran. Amaieran, haurren une desiratua, dantzan egiten dute biek buruz buru eta amaieran elkarri muxu ematen diete. Haur txikiek, haien txupeteak ematen dizkiete handitzen direnean eta soka batetik zintzilik eramaten dituzte erraldoiek.

Gauerdian zezensuzkoa izaten da Zumardian, eta horrek ere ikusmira handia sortzen du.

Liburuxkan dituzuen argazkiez gain, material osagarrian entzierroko beste hainbat argazki aurkituko dituzue.

Material osagarria:

[Entzierroa 1](#)

[Entzierroa 2](#)

[Entzierroa 3](#)

[Entzierroa 4](#)

JARDUERA: Ba al dakizu jaietako zein une diren hauek?

Koadernoko 21. orrialdea.

35. SAN MARKO OPILA

San Marko egunean, apirilaren 25ean, ohitura da amandreek beren besoetakoei opila oparitzea.

Opilak baditu berezia egiten dituen elementuak: koloretako lumak, koloretako arrautzak eta txitak.

Urteen joan etorrian berrikuntza ugari izan dituzte opilek. Lehen arrautzak egosi eta ondoren margotutakoak ziren. Orain, ordea, gehienetan txokolatezkoak izaten dira eta opilak ere izaten du txokolatea eta ganean koloretako gozokiak.

Horregatik, San Marko eguna hurreratzen den heinean, herriko gozodendetako erakusleihoak kolorez betetzen dira.

Etxe bakoitzak bere ukituak ematen dizkio tradizio honi. Zenbait etxetan, ezkondu arte mantentzen da ohitura. Ikasleei San Marko opila prestatzeko proposa diezaiekegu. Etxean egin dezakete, edo animatuz gero ikastetxean ere egin dezakezue. Horretarako, opila egiteko errezeta eskaintzen dizuegu, gutxi gorabeherakoa.

OSAGAIK: 3 arrautza, 100 gramo irin, 100 gramo azukre, koloratzailea, siropea (ura, azukrea, koloratzailea eta rona) eta glass azukrea.

NOLA PRESTATU: Arrautzak eta azukrea nahastu, harrotu arte. Ondoren, irina

gehitu eta oreka xuabe-xuabe nahastuko dugu.

Gurinez busti dugun moldera botako dugu egindako oreka. Labean sartu 20 minutuz 190-200 gradutan.

Opila labetik atera, eta ura, marmelada eta rona berotuz eginiko siropearekin bustiko dugu. Glass azukrea bota eta apaintzeko gozokiak, anisak, txokolata eta nahi duzuna ipini apaintzeko.

Ez ahaztu koloretako arrautzak, lumak eta txita. On egin!

JARDUERA: Zuk ere presta dezakezu San Marko opila: hemen errezeta!

Ez ahaztu koloretako arrautzak, lumak eta txita. On egin!

Koadernoko 21. orrialdea.

JARDUERA1: Aztertu ditugu herrian ospatzen diren hainbat jai. Nahi izanez gero jarrai dezakegu sakontzen gai horretan. Zerrenda bat osa dezakegu zein beste jaia ezagutzen dituzten aipatzen, jaien barruan zein ekitaldi dituzten gogokoenak, zein beste ekitaldi proposatuko lituzketen eta abar.

JARDUERA2: Taldeka bildu eta osa ezazue jai egitarau bat. Kontuan izan adin guztietako jendearentzako ekitaldiak antolatu behar dituzuela.

Gainera, festak iragartzeko txartela ere diseina dezakezue.

Nahi izanez gero, jokoak edo antzeko ekintzak antolatzen badituzue, ikaskideekin edo txikiagoekin antolatu eta egin ditzakezu. Ziur oso ondo pasako duzuela!

36. JAKINGO OTE ZENUKE...

Iritsi gara hirugarren unitatearen amaierara. Aurreko unitateetan egin duzun gisan, orrialde honetan ikasleei ikasi dutenari buruz hausnartzeko tartea eskaini nahiko genieke.

Horretarako hainbat ariketa proposatu nahi ditugu. Egokiak ikusiz gero, ebaluazio modura ere erabil daitezke.

